



Akta honen osagarri, bilkurako irudiak eta audioa grabatu dira.
Honako hau da ondoriozko artxiboaren identifikazio kodea:

ad254a5ecbd5d022f43fa273cb610ac98062711db2bf684046eeb1c2746a18e0

Lotura honetan dago: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/idazkaritza/udal-plenoetako-aktak>

TOLOSAKO UDALBATZAK 2022KO URRIAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

2022.10.27

Tolosako udaletxean, 2022ko urriaren hogeita zazpian, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:

Olatz Peon Ormazabal (EAJ-PNV)

Parte hartu duten zinegotziak:

Begoña Tolosa Mendia (EAJ-PNV)
Xarles Iturbe Pasaban (EAJ-PNV).
Jose Francisco Amantegi Zubiria (EAJ-PNV)
Joseba Koldo Ormazabal Lopez (EAJ-PNV)
Egoitz Sorozabal Iturain (EAJ-PNV)
Xabier Balerdi Tolosa (EAJ-PNV)
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe (EAJ-PNV)
Ander Figuerido Zubiria (EH BILDU)
Kristina Pelaez Errazquin (EH BILDU)
Aitana Amondarain Esquisabel (EH BILDU)
Aitzol Garcia Azurmendi (EH BILDU)
Garbiñe Marzol Ormazabal (EH BILDU)
Xabier Martinez Quinquilla (EH BILDU)
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui (EH BILDU)
Estitxu Kortejarena Ugarte (EH BILDU)
Jose M. Villanueva Telleria (PSE-EE)

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzaile akzidentala:

Paulino Alonso Eraso



Gai-zerrenda

1. Ondorengo akta onartzea:
2022ko irailaren 29ko Ohiko Osoko Bilkurakoa.
2. Hasierako onarpena ematea, 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: Ordenantza orokorra, zergak eta zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko.
3. Hasierako onarpena ematea, 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: Ondasun higieziei buruzko zerga erregulatzen duen Ordenantza Fiskala.
4. Hasierako onarpena ematea, 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.
5. Hasierako onarpena ematea, 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.
6. Hasierako onarpena ematea, 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: Hiri izaerako lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala.
7. Hasierako onarpena ematea, 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.
8. Hasierako onarpena ematea, 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen Ordenantza Fiskala.
9. Hasierako onarpena ematea, 2023 ordenantza fiskal honen aldaketari: Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.
10. Onartzea 2023. urterako Taxien tarifak.
11. Hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 15/2022 espedienteari.
12. Hasierako onarpena ematea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 16/2022 espedienteari.
13. Hasierako onarpena ematea 2022ko dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamenari: 4-2022
14. Onartzea Tolosako Udalaren 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko proposamena.
15. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.
16. Administrazio Orokorreko lau administrari plaza barne sustapenez hornitzeko deiadiaren etetzea indarrrik gabe uztea.
17. Behin betiko onartzea Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programako oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa.
18. Onartzea Eusko Eki SL enpresari Tolosako udal liburutegian emandako zerbitzuengatik aurkeztutako fakturak ordainketa.
19. Tolosako HAPOko «11 San Esteban» Hirigintza Esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hastea eta herritarrek parte hartzeko programa onartzea
20. Kreditu aldaketa honen berri ematea:



- 2022/2532 Alkatetza Dekretua, 13/2022 espedienteari dagokiona.
- 21. Kreditu aldaketa honen berri ematea:
 - 2022/2528 Alkatetza Dekretua, 14/2022 espedienteari dagokiona.
- 22. Etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantza berriaren behin betiko onespeneren berri ematea.
- 23. Tolosako landa auzoetako baserri-bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen duen ordenantzako aldaketaren behin betiko onespeneren berri ematea.
- 24. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

1. ONDORENGO AKTA ONARTZEA:

2022KO IRAILAREN 29KO OHIKO OSOKO BILKURAKOA.

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

2. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2023. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: ORDENANTZA OROKORRA, ZERGAK ETA ZUZENBIDE PUBLIKOAREN BESTELAKO SARRERAK KUDEATZEKO ETA BILTZEKO.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegui eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2023. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilia behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpenera ematea proposatzen da.



**ORDENANTZA OROKORRA, ZERGAK ETA UDAL ZUZENBIDE PUBLIKOAREN
BESTELAKO SARRERAK KUDEATZEKO ETA BILTZEKO.**

Ordenantza Orokorreko 1. eranskinean egutegi fiskala azaltzen da. Bertan, 2.2.3 eranskinean azaltzen diren azoketako ordaintzeko borondatezko epea falta da.

Bide batez, etxez etxeko laguntzaren ordaintzeko borondatezko epea «hurrungo hileko 2. astea» jarri beharrean, «hurrungo hileko 20. egunean» jartzea proposatzen da.

Terrazak ere hiruhilero kobratzea proposatzen da.

Belena patioiko 2. seihilabeteko borondatezko epea urriaren 1etik azaroaren 10era pasatzea proposatzen da.

Baratzaren borondatezko epea urriaren 1etik azaroaren 10era izatea proposatzen da.

Hori sartzea proposatzen da:

KONTZEPTUA CONCEPTO	ALDIA PERIODO	ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA PLAZO DE PAGO VOLUNTARIO	HELBIDERATUTAKO ERREZIBOAK COBRO DE RECIBOS DOMICILIADOS
Hilean behin ordaintzen diren zergak 1. <u>Tributos de periodicidad mensual</u> - Etxez etxeko laguntza - <i>Asistencia domiciliaria</i> <u>Hiruhileko ordaintzen diren zergak</u> <u>Tributos de periodicidad trimestral</u> - Azokak - Terrazak	Hilean behin 1. Hiruhilean behin Hiruhilean behin	Hurrungo hileko 20. eguna <i>Día 20 del mes siguiente</i> Hiruhilabeteko 2. hilabeteko 15. egunetik 3. hilabeteko 15. egunera Del día 15 del 2º mes del trimestre, al día 15 del 3º mes del trimestre Hiruhilabeteko 2. hilabeteko 15. egunetik 3. hilabeteko 15. egunera Del día 15 del 2º mes del trimestre, al día 15 del 3º mes del trimestre	Borondatezko epearen azken egunean 2. <i>Último día del periodo voluntario</i> Borondatezko epearen azken egunean 3. <i>Último día del periodo voluntario</i> Borondatezko epearen azken egunean 4. <i>Último día del periodo voluntario</i>
Seihilabetero ordaintzen diren tasa: <u>Tasas de periodicidad semestral:</u> - Belena patioa	Seihilabetero Semestral	Ekainak 1 – Uztailak 7 1 de Junio – 7 de Julio Urriak 1- azaroak 10 1 de octubre- 10 de noviembre	Borondatezko epearen azken egunean <i>Último día del periodo voluntario</i>
<u>Urtean behin ordaintzen diren zergak:</u> - Baratzak		Urriak 1- azaroak 10 1 de octubre- 10 de noviembre	Borondatezko epearen azken egunean <i>Último día del periodo voluntario</i>



Ordenantza Orokorreko 2. eranskinean atzeratzeko edo zatikatzeko, gehieneko epea eta aurkeztu beharreko bermeak eta diru aurrerakinak azaltzen dira. Bertan azaltzen da hondamendi, alarma edo alerta egoeran, gertakari publiko larri edo arrisku larrien kasuan, Alkatetzak luzatu ahal izango dituela emandako atzeratzeak edo zatikatzeak ordaintzeko epeak.

Honez gain, ondorengoa onartzea proposatzen da:

Hondamendi, alarma edo alerta egoeran, gertakari publiko larri edo arrisku larrien kasuan, edo **muturreko kalteberatasun-egoeretan** Alkatetzak luzatu ahal izango dituela emandako atzeratzeak edo zatikatzeak ordaintzeko epeak.

Muturreko kalteberatasun egoeratan derrigorrezkoa izango da dagokion departamentuaren eskaera eta kontuhartzailtzako aldeko txostena.

Azkenik, 6. artikulua dio:

«Zerga bilketa kudeatzeko eraginkortasun- eta ekonomia- irizpideak direla-eta, 10 euroko kuota likidoa baino gutxiagoko likidazioak salbuetsi egingo dira.»

Hori, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren likidazioei eta Hiri izaerako lurren balio gehitzearen zergaren likidazioei eragingo diela zehaztu behar da. Honela geratuko da:

«Zerga bilketa kudeatzeko eraginkortasun- eta ekonomia- irizpideak direla-eta, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan eta Hiri izaerako lurren balio gehitzearen zergan, 10 euroko kuota likidoa baino gutxiagoko likidazioak salbuetsi egingo dira.»

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.



Beraz, Udalbatzak gehiengoz hasierako onarpenera eman dio 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: Ordenantza orokorra, zergak eta zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko.

3. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2023. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegui eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2023. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilita behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpenera ematea proposatzen da.

ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGA ERREGULATZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES

Zerga tipoari dagokionez, hiru karga tasa daude:

- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: % 6
- Gainerako hiri ondasunetarako: %0,3137
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa: %1



Bigarren karga tasa %3 igotzea proposatzen da. Hori dela eta, honela geratuko dira hiru karga tasak:

- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: % 6
- Gainerako hiri ondasunetarako: %0,3231
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa: %1

Bestalde, hobariei dagokienez, herritarrei informazioa ez eskatzearen, Tolosako udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituen ala ez zehazteko NISAE plataforma erabiliko du. Horretarako, familia ugarien hobariari dagokionez, ondorengo jarri behar da:

“Atal honek ezarritakoaren arabera, 39/2015 Legearen 38. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikulua, Tolosako Udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez:

- Eusko Jaurlaritza: familia ugarien tituluen kontsulta
- Foru Ogasuna: Ondasun higiezinaren kontsulta”

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: ondasun higieziinei buruzko zerga erregulatzen duen ordenantza fiskala.



4. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2023. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegui eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2023. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilita behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpema ematea proposatzen da.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEN ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA

Igoera %3koa da.

Gaur egun, ibilgailu elektrikoek %95ekok hobaria dute eta hibridoek %50eko hobaria matrikulatutako datatik aurrerako lehen 2 urteetan. Hori aldatzea proposatzen da: epea kentzea, baina portzentaiak %60era (elektrikoak) eta %30era (Hibridoak) pasatzea.

Bestalde, hobariei dagokienez, herritarrei informazioa ez eskatzearen, Tolosako udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituen ala ez zehazteko NISAE plataforma erabiliko du.

Horretarako, ondorengo jarri behar da:

Atal honek ezarritakoaren arabera, 39/2015 Legearen 38. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikulua, Tolosako Udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez:

- Trafiko Zuzendaritza Nagusia: ibilgailuaren datuak kontsultatzea



Mugikortasun murriztua edo desgaituen kasuan:

- Foru Ogasuna: desgaitasuna edo mendekotasun egoera egiaztatzeko ziurtagiri eguneratua

Familia ugariaren hobaria eskuratzeko:

- Eusko Jaurlaritza: familia ugarien tituluen kontsulta

ERANSKINA/ANEXO

IBILGAILU MOTA ETA POTENTZIA	2022	KUOTA 2023
A)TURISMOAK		
9 zaldi fiskal bitartekoak	46,85	48,20
9 – 11,99 zaldi f. Bitartekoak	93,70	96,35
12 – 13,99 zaldi f. Bitartekoak	156,15	160,60
14 – 15,99 zaldi f.bitartekoak	218,60	224,85
16 – 19,99 zaldi f.bitartekoak	281,05	289,10
20 zaldi fiskaletik gorakoak	343,50	353,35
B)AUTOBUSAK :		
21 plaza bitartekoak	203,20	209,10
21 - 50 plaza bitartekoak	289,40	297,80
50 plazatik gorakoak	361,85	372,25
C)KAMIOIAK:		
1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria	103,15	106,10
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	203,20	209,10
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e.	289,40	297,80
9.999 kg-tik gorako k.e	361,85	372,25
D)TRAKTOREAK		
16 zaldi fiskal bitartekoak	43,10	44,35
16 – 25 zaldi f. bitartekoak	67,75	69,70
25 zaldi fiskaletik gorakoak	203,20	209,10
E) TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ATOI ETA ERDI-ATOIAK		
750-1000kg.bitarteko karga erabilgarria	43,10	44,35
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.	67,75	69,70
2.999 kg.tik gorako karga e.	203,20	209,10
F)GAINERAKO IBILGAILUAK		
Ziklomotoreak	11,00	11,30
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak	11,00	11,30
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartekoak	18,80	19,40
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartekoak	39,50	40,80
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartekoak	79,05	81,60
Motozikletak 1.000 cctik gora	158,05	163,15

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik



ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

5. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2023. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2023. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilia behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpena ematea



proposatzen da.

ICIOaren kasuan, nekazaritza eta abelazkuntzako ustiapenetan egiten diren obretan %1 aplikatzen zaie, %5 izan beharrean. Baina ez da argi geratzen nekazaritza eta abelazkuntzako ustipenari lotutako baserrietan egindako obretan ze portzentai kobratu.

Ingurumen teknikariaren proposamena hau da, %1a kobratzeko:

" Nekazaritzako eta abelazkuntzako ustiapenerako baino ez diren obrak eta horrekin lotuta dauden ondasun higiezinetakoa obrak.

Etxebizitza erabilerarekin lotura duten obrei tasa orokorra aplikatuko zaie."

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

6. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2023. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: HIRI IZAERAKO LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:



Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegui eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2023. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilita behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpena ematea proposatzen da.

HIRI IZAERAKO LURREN BALIO ORDENANZA FISCAL REGULADORA
GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA DEL IMPUESTO SOBRE EL
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA INCREMENTO DE VALOR DE LOS
FISKALA **TERRENOS DE NATURALEZA URBANA**

%3ko igoera aplikatzea proposatzen da:

	2022	2023
II <u>TARIFA</u> Karga tasa – Tipo de gravamen	10%	10,3%

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: hiri izaerako lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.

7. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2023. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegui eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- 2023. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailen 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilia behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpena ematea proposatzen da:



2.1.1. Dokumentu administratiboak

DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK		2022	2023
A1	<u>ZIURTAGIRIAK</u> Udal-bulegoetan egindako gainerako agiri edo datuen ziurtapenak, orriko	2,75	2,85
A.2	Kokapen bereko hirigintzari dagozkion dokumentuen onarpena adierazten duten ziurtagiriak	2.192,00	2.257,75
<u>LIZENTZIAK, KONTZESIOK ETA BAIMENAK</u>			
B.1	Aurri-deklaraziozko espedientea tramitatzeari, Udaletik kanpoko profesionali eskaturiko aholkumendu eta txostenen gastuak kobratzearen kalterik gabe, minimoa	935,00	963,00
B.2	Jarduera gogaikarri, kaltegarri eta arriskutsuen espedientearen tramitazioa, baldin eta irekitzeko baimenarekin batera ez badao	202,25	208,25
B.3	Txosten eta atestatuaren bidalketa eta kopiaketa	17,25	17,75
C.1	Ahalordeen askiespena	23,45	24,25
C.2	Zirkoa	295,60	304,50

BESTE BATZUK		2022	2023
D.1	Por cada fotocopia realizada en las maquinas municipales		
	DIN A-4	0,12	0,12
	DIN A-3	0,23	0,24
	DIN A-4 Koloretan	1,29	0,33
	DIN A-3 Koloretan	2,34	2,41
	Hirigintzaren inguruko aurretiazko edozein kontsultarengatik, gutxienez, eta kontsultaren ebaluazioak udaletik kanpoko profesionali eskatutako aholkularitza edo txostenak alde batera utzita, sortutako gastuak.	36,90	38,00
D.2	Planoen kopiak T/B		
	DIN A-2 bakoitza	1,35	1,40
	DIN A-1 bakoitza	1,90	1,95
	DIN A-0 bakoitza	2,45	2,50
	Besteak. Metro lineala	2,45	2,50
D.3	Plotterarekin lorturiko kolorezko kopiak		
	DIN A-2 bakoitza	1,95	2,00
	DIN A-1 bakoitza	2,30	2,35
	DIN A-0 bakoitza	2,70	2,80
	Besteak. Metro lineala	2,70	2,80
D.4	DWG an planoen kopiak	0,86	0,90
	Planoen kopiak hurrengo formatoetan: PDF, JPEG o		
D.5	TIFF	0,27	0,30
D.6	CD-W hutsa	1,63	1,70



2.1.2.1 Hirigintzako baimenak

Tramo gehiago jartzea proposatzen da. Gaur egun horrela dago:

	HIRIGINTZAKO BAIMENAK	EUROAK 2021	2022
A)	OBRA BAIMENAK		
	A.1 3.005,06 € bitarteko aurrekontua	36,05	36,95
	A.2 3.005,07 – 6.010,11 € bitarteko aurrekontua	71,85	73,65
	A.3 6.010,12 - 30.050,61 € bitarteko aurrekontua	359,65	368,65
	A.4 30.050,62-120.202,41 bitarteko aurrekontua	705,65	723,30
	A.5 120.202,42 –721.214,51 € bitarteko aurrekontua	3.732,70	3.826,00
	A.6 721.214,52- 3.005.060,51 € bitarteko aurrekontua	7.465,45	7.652,10
	A.7 3.005.060,52 € tik gorako aurrekontua	11.192,90	11.472,70
B)	LEHEN ERABILERAKO BAIMENAK B.1Eraikin eta oro har instalazioen lehen erabilerarako baimenak ehunekotan, eraikuntza, instalazio eta obren zergan lortutako baimenaren zenbatekoaren gainean		
		15,00	15,00
C)	HIRIGINTZAKO ESPEDIENTE TRAMITAZIOA		
	C.1.Hirigintza gestioko dokumentu bakoitzeko: Exekuzio unitateen mugaketa Urbanizazio proiektuak Birpartzelatze proiektuak	3.232,55	3313,35
	C.2. Hirigintza partzelazioak	359,65	368,65
	C.3. Kontsultak eta hirigintza zedulak	146,65	150,30



Orain ondorengo tramoak jartzea proposatzen da:

HIRIGINTZAKO BAIMENAK		2022	2023
A) OBRA BAIMENAK			
A.1	3.005,06 € bitarteko aurrekontua	36,95	38,05
A.2	3.005,07 – 6.010,11 € bitarteko aurrekontua	73,65	75,85
A.3	6.010,12 -15.000 € bitarteko aurrekontua	368,65	257,50
A.4	15.000,01 - 30.050,61 € bitarteko aurrekontua	368,65	379,70
A.5	30.050,62-60.000 bitarteko aurrekontua	723,3	561,35
A.6	60.000,01 -120.202,41 bitarteko aurrekontua	723,30	745,00
A.7	120.202,42 –721.214,51 € bitarteko aurrekontua	3.826,00	3.940,80
A.8	721.214,52- 3.005.060,51 € bitarteko aurrekontua	7.652,10	7.881,65
A.9	3.005.060,52 € tik gorako aurrekontua	11.472,70	11.816,90
B) LEHEN ERABILERA KO BAIMENAK			
B.1	Eraikin eta oro har instalazioen lehen erabilerarako baimenak ehunekotan, eraikuntza, instalazio eta obren zergan lortutako baimenaren zenbatekoaren gainean	15,00	15,00
C) HIRIGINTZAKO ESPEDIENTE TRAMITAZIOA			
C.1.	Hirigintza gestioko dokumentu bakoitzeko: Exekuzio unitateen mugaketa Urbanizazio proiektuak Birpartzelatze proiektuak	3.313,35	3.412,75
C.2.	Hirigintza partzelazioak	368,65	379,70
C.3.	Kontsultak eta hirigintza zedulak	150,30	154,80



2.1.2. Aurretiazko komunikazioa

AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOA		2022	2023
A)			
	3000 € bitarteko aurrekontua	31,00	31,95
	3000,01-6000 bitarteko aurrekontua	36,00	37,10
	6000,01-15.000 bitarteko aurrekontua	46,00	47,40
	15.000,01-30.000 bitarteko aurrekontua	56,00	57,70
	30.000,01- 50.000 bitarteko aurrekontua	67,00	69,00
	>50.000,01 bitarteko aurrekontua	82,00	84,45

2.1.3. Establezimenduak irekitzeko baimenak.

3/1998 legea indargabetuta dago eta indarrean dagoena 10/2021 legea da, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena. Ondorioz, taula aldatu egiten da.

Era berean, jardueren titulartasun aldaketagatik edo zabalkuntzarik gabeko titulartasun aldaketan, tarifen erdia likidatzen zen orain arte. Hemendik aurrera, herena likidatzea proposatzen da.

Hori dela, Hirigintza sailaren proposamenean oinarrituz, taulak honela aldatzen dira:



2.1.3.1 JARDUERA SAILKATUEN BAIMENAK (10/2021 LEGEKO 1.C ERANSKINA)		EUROAK 2022	EUROAK 2023
A)	A.1. Gasolina-zerbitzuguneak eta hornitegiak (8)	817,90	842,45
	A.2. Dendak eta biltegiak (7)	456,75	470,45
	A.3. Ostalaritza (14-15 puntuak)	604,45	622,60
	Jolas aretoak	5.513,35	5.678,75
	Dantzalekuak eta diskotekak	16.549,70	17.046,20
	Bingoak eta kasinoak	16.549,70	17.046,20
	Kafetegiak eta kategoria bereziko edaritegiak (Pub)	8.286,15	8.534,75
	Jatetxeak	2.207,50	2.273,75
	Bestelako edaritegiak		
		1.109,10	1.142,35
	A.4. Industriak eta 1-6, 10-13 eta 16ra dauden puntuak	817,85	842,40
	A.5. Abeltzaintza ustiategiak edo ustiategi baliokideak (17-18 puntuak)	196,70	202,60
	A.6. Bestelako instalazioak (9 eta 19 puntuak)	214,00	220,40
	A.7. Lokalen azalera 100 m ² gaindituz gero, tarifak bikoiztu egiten dira (A.3. puntuak izan ezik). 200 m ² gaindituz gero, hirukoitza.		
B)	Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasun aldaketan, tarifaren herena likidatuko da.		

2.1.3.2. JARDUERA SAILKATUEN AURRETIAZKO KOMUNIKAZIOAK (10/2021 LEGEKO 1.D ERANSKINA)		EUROAK 2022	EUROAK 2023
A)	A.1. Ibillgailuak zaintzeko lekuak (Eransk. 5. puntua)	428,85	441,70
	A.2 Dendak (3. puntua)	428,85	441,70
	A.3 Zerbitzuak (6, 7 eta 14 puntuak)	614,75	633,20
	A.4 Industriak eta 1,2,4 eta 14, 15 eta 16 puntuetan daudenak	817,85	842,40
	A.5 Abeltzaintza ustiategi txikiak (10. puntua)	196,70	202,60
	A.6 Zentro eta instalazio osagarriak (11, 12 eta 13- puntuak))	213,95	220,35
	A.7. Ostalaritza (8. puntua)		
	A.7.1 Jatetxeak:	1.658,30	1.708,05
	A.7.2 Bestelako edaritegiak, kafe dastaketa eta antzekoak	1.109,10	1.142,35
	A. 8. Gurtzarako zentroak		441,70
	Jarduera aldaketa edo zabalkuntzarik gabeko titulartasuna aldaketan, tarifaren herena likidatuko da.		



2.1.4. Auto-taxi eta gainerako akura ibilgailuen lizentziak eta baimenak

	AUTO TAXI ETA GAINERAKO AKURA IBILGAILUEN LIZENTZIAK ETA BAIMENAK	EUROAK 2022	EUROAK 2023
A)	AUTO-TAXIEN LIZENTZIAK		
	A.1 Lizentziak eman eta erregistratzea Auto-taxi lizentzia bakoitza	11.473,00	11.817,20
	A.2 Lizentzien erabilera eta ustiapena Lizentzia bakoitza, urteko	51,60	53,15
	A.3 Ibilgailuen ordezkapena Ordezkapen lizentzia bakoitza	51,60	53,15
	A.4 Lizentzien transmisioa Lizentzia transmisio bakoitza	11.473,00	11.817,20
B)	AKURAKO AUTOEN LIZENTZIAK		
	B.1 Kontzesioa Lizentzia kontzesio bakoitza	227,85	234,70
	B.2 Erabilerak eta ustiapena Urteko lizentziaren erabilera eta ustiapena	34,40	35,45
	B.3 Lizentzien transmisioa Baimendutako kontzesiozko ibilgailu aldaketa bakoitza	34,40	35,45



Hondakinen bilketa eta ezabaketa

%5ekoigoera aplikatzea proposatzen da.

Autokonpostaren tarifa aplikatu ahal izateko, herritarrak eskaera egin beharko du urtero.

Bestalde, hobariei dagokienez, herritarrei informazioa ez eskatzearen, Tolosako udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen ez dituen ala ez zehazteko **NISAE** plataforma erabiliko du.

Horretarako, ondorengo jarri behar da:

Atal honek ezarritakoaren arabera, 39/2015 Legearen 38. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikulua, Tolosako Udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez:

- Eusko Jaurlaritza: Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoen kontsulta
- Gizarte Segurantzaren Instituto Nazionala: Gizarte prestazio publikoen kontsulta
- Lanbide: Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren kontsulta
- Foru Ogasunak: PFEZaren kontsulta
- Estatuko Enpleguko Zerbitzu Publikoa- Langabeziako aldiko zenbatekoaren kontsulta

HONDAKINEN BILKETA ETA EZABAKETA	EUROAK 2022	EUROAK 2023
Etxebizitzak (jarduera ekonomiko gabe)		
1 Orokorra	133,00	139,65
2 Auzokonposta	106,80	112,15
3 Autokonposta	93,10	97,75
4 Gazte lokalak	133,00	139,65
5 Eranskineko 1.multzoan daudenak	133,00	139,65
6 Eranskineko 2.multzoan daudenak	265,90	279,2
7 Eranskineko 3.multzoan daudenak	531,90	558,5
8 Eranskineko 4.multzoan daudenak	2.620,30	2751,3
9 Eranskineko 5.multzoan daudenak	6.648,90	6981,35
Garaje eta lokal edo behe itxia		
10 Lokal itxiak eta 1-4 plazako garajeak	41,10	43,15
11 5-25 plazako garaje kolektiboak	175,50	184,3
12 25 baino gehiagoko garaje kolektiboak	362,70	380,85
13 Industria	362,70	380,85



2.1.7. Hilerria

Hilerria kudeatzen duen enpresarekin bildu eta gero, errautsak nitxo eta kolunbarioetan sartzeko tasa zehaztea proposatzen da. Gaur egun ez dago garbi zenbateko tasa kobratu behar den. "Barne lekualdaketa"ren kopuru berdina likidatzea proposatzen da.

HILERRI ZERBITZUA	EUROAK 2022	EUROAK 2023
Panteoain hilobiratzea	228,90	235,75
Lurpean hilobiratzea	171,95	177,10
Barne lekualdaketa	160,15	164,95
Kanpo lekualdaketa	228,90	235,75
Hilobitak ateratzea	247,20	254,60
Hilobi eskubdeen emakida		
Bakuna 50 urte	14.250,85	14.678,40
Bikoitza 50 urte	21.139,85	21.774,05
Anizkuna 50 urte	27.996,75	28.836,65
Horma hilobiak 10 urte	1.370,30	1.411,40
Hautsontziak 10 urte	342,80	353,10
Kolunbarioak 10 urte	370,80	381,90
Murrizteak:		
Gopuzki 1	139,70	143,90
2 Gopuzki	220,30	226,90
3-10 Gopuzki	302,00	311,05
10etik gora Gopuzki	407,35	419,55
Gopuzkien murrizte kutxa	113,95	117,35
Kontzesio elementuak erabiltzea	46,25	47,65
Errautsak nitxoetan, kolunbarioetan		164,95



2.1.8. Ibilgailuak bide publikotik kentzea eta jasotzea

	IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA , JASOTZEA ETA IBILGETZEA	EUROAK 2022	EUROAK 2023
1.	<u>IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK KENTZEA</u>		
	1.1. Motozikletak eta ziklomotoreak kentzea	18,9	19,5
	1.2.Turismoak, oro har, eta furgoneta misto txikiak.	65,3	67,25
	1.3 Monobolumenak, lurrerotakoak 4x4 eta furgoneta handiak.	82,75	85,25
	1.4 2.000 kg-ko edo gehiagoko pisua duten kamioi, traktore, kamioneta-atoi eta antzeko ezaugarriak dituzten ibilgailuak bide publikotik kentzea: garabiaren fakturrari %30a erantsiko zaio.		
	1.5 Aurreko lau ataletan aipatutako ekintzak hasi besterik ez badira egin eta ibilgailuaren jabea ibilgailua bera oraindik eraman gabe dagoenean agertzen bada, tarifaren kuota %50era murriztuko da.		
	1.6. Zerbitzu publikoetako ibilgailuen zirkulazioa oztopatzen duten ibilgailuen tarifak %100en igoko dira		
2.	<u>IBILGAILUEN GORDAILAKETA</u>		
	Ibilgailua jaso eta hirugarren egunetik aurrera gidaria edo jabea haren bila etorri ez bada, ibilgailua bertan edukitzeagatik dagozkien kuotak gehituko zaizkie aurreko tarifei.		
	Hauek izango dira tarifak:		
	2.1. Motozikleta eta ziklomotoreak, egun eta zatikiko	3,95	4,1
	2.2. Ibilgailuak oro har, egun eta zatikiko	17,8	18,35
3.	<u>IBILGAILUEN IBILGETZEA</u>		
	3.1 Ibilgailuak oro har, furgonetak, ibilgailu lurrerotakoak, eta hirugarren mailako ibilgailuak ibilgetzeagatik	33,9	34,9
	3.2Motozikletak, ziklomotoreak eta kuatrizikloak ibilgetzeagatik	13,95	14,35



Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia

	ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIA	EUROAK 2022	EUROAK 2023
1.	Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea	23,90	24,6
2.	Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia berritzea	23,90	24,6
3.	Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan izena ematea	23,90	24,6

Balio anitzeko etxebizitza sozialak

	BALIO ANITZEKO ETXEBIZITZA SOZIALAK	EUROAK 2022	EUROAK 2023
A)	TARIFAK		
	65 urtetik gora, familia unitateko eta hilabeteko:		
	Etxebizitza ez partekatua	250,25	257,75
	Etxebizitza ez partekatua, hornidurak onuradunaren izenean	168,25	173,3
	Etxebizitza partekatua	209,25	215,55
	65 urtetik behera, familia unitateko eta hilabeteko:		
	Etxebizitza ez partekatua	286,45	295,05
	Etxebizitza ez partekatua, hornidurak onuradunaren izenean	204,45	210,6
	Etxebizitza partekatua	245,45	252,8



2.1.23.Kartografia

Gaur egun honela dago taula:

SUSTATZAILE PRIBATURAI DAGOKION TASA UDAL KARTOGRAFIA EGUNERATZEKO	EUROAK 2022
<i>Urbanizazio-proiektuak (Ondoriozko azalera publikoaren neurketa)</i>	
Lehen hektarea edo frakzioa	1187,25
Hurrengoak, bakoitzeko	735,9
<i>Eraikin berriei emandako obra handiko lizentziak</i>	
Lehen hektarea edo frakzioa	1187,25
Hurrengoak, bakoitzeko	735,9
<i>Kartografiaren aldaketa eragiten duten eraispenei emandako obra handiko lizentziak:</i>	
Lehen hektarea edo frakzioa	735,9
Hurrengoak, bakoitzeko	735,9
<i>Bide publikoari edo fatxaden lerrokaduei nolabait eragiten dieten eraikin birgaitzeari emandako obra handiko lizentziak</i>	
Kuota	735,9
<i>Eraikin-jasotzei emandako obra handiko lizentziak:</i>	
Kuota	262,75
<i>Eraikin-handitzei emandako obra handiko lizentziak:</i>	
Kuota	397,65
<i>Ondoren eraikitze-lizentziarik ez dakarten lur mugimenduei emandako obra handiko lizentziak</i>	
Kuota	406,8
<i>Patioak, jolastokiak edo antzekoak estaltzeko emandako obra handiko lizentziak:</i>	
Kuota	197,7
<i>Zuikenta egiaztapenareako topografia ekipamendua behar duten obra handiko lizentziak</i>	
Kuota	416
<i>Lurzoru ez urbanizagarrian baimengarriak diren, nekazaritza, abeltzaintza, basogintzako eraikinenetako obra handiko lizentziak</i>	
	260,6



Ingurumen teknikariaren arabera, lurzoru ez urbanizagarrian baimengarriak diren nekazaritza, abeltzaintza, basogintzako eraikinetako obra handiko lizentziak ematen direnean ez da praktikan udal kartografia eguneratzen, ondorioz, azken puntua kentzea proposatzen da:

SUSTATZAILE PRIBATURAI DAGOKION TASA UDAL KARTOGRAFIA EGUNERATZEKO	EUROAK 2022	EUROAK 2023
<i>Urbanizazio-proiektuak (Ondoriozko azalera publikoaren neurketa)</i>		
Lehen hektarea edo frakzioa	1187,25	1222,85
Hurrengoak, bakoitzeko	735,9	758
<i>Eraikin berriei emandako obra handiko lizentziak</i>		
Lehen hektarea edo frakzioa	1187,25	1222,85
Hurrengoak, bakoitzeko	735,9	758
<i>Kartografiaren aldaketa eragiten duten eraispenei emandako obra handiko lizentziak:</i>		
Lehen hektarea edo frakzioa	735,9	758
Hurrengoak, bakoitzeko	735,9	758
<i>Bide publikoari edo fatxaden lerrokauei nolabait eragiten dieten eraikin birgaitzeari emandako obra handiko lizentziak</i>		
Kuota	735,9	758
<i>Eraikin-jasotzei emandako obra handiko lizentziak:</i>		
Kuota	262,75	270,65
<i>Eraikin-handitzei emandako obra handiko lizentziak:</i>		
Kuota	397,65	409,6
<i>Ondoren eraikitze-lizentziarik ez dakarten lur mugimenduei emandako obra handiko lizentziak</i>		
Kuota	406,8	419
<i>Patioak, jolastokiak edo antzekoak estaltzeko emandako obra handiko lizentziak:</i>		
Kuota	197,7	203,65
<i>Zuikenta egiaztapenareako topografia ekipamendua behar duten obra handiko lizentziak</i>		
Kuota	416	428,5

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik



ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz hasierako onarpena eman dio 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldaketari: zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala.

8. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2023. URTERAKO, ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: HERRI JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOZKIEN TASEN ORDENANTZA FISKALA.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegi eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA



LEHENA.- 2023. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako eta Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailean 5eko 11/1989 zenbakidun Arau Forala erabilia behean agertzen diren ordenantzen aldaketei hasierako onarpena ematea proposatzen da:

HERRI JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOARI ETA HAREN APROBETXAMENDU BEREZIARI DAGOZKIEN TASEN ORDENANTZA FISKALA

%3ko igoera.

2.2.1 eranskina- Hesiak, aldamioak, eskorak eta asnilak

	HESIAK, ALDAMIOAK, ESKORAK ETA ASNILAK	EUROAK 2022	EUROAK 2023
1.	Hesiak,edozein obretan (Eguneko, m ² edo zatikia)	0,58	0,60
2.	Aldamio finkoetan jarritako defentsak, bide publikoan eutsiak,azpitik ibiltzea ezinezko bihurtzen duten euskarriekin. (Eguneko, m ² edo zatikia)	0,58	0,60
3.	Defentsa berberak aldamioak bide publikoan eutsita daudenean iladan jarritako euskarriekin fatxadako lerroarekin paraleloan eta bertatik 1,2 metro edo distantzia gehiagora, langarik gabe altueran 3 metro baino gutxiagokoak eta azpitik ibil daitekeenean.(Eguneko, m ² edo zatikia)	0,33	0,34
4.	Defentsa berberak aldamioak erlaizean jarrita daudenean 3 m. baino gehiagoko altueran bide publikoan euskarririk gabe eta horien azpian ibil daitekeenean. (Eguneko, m ² edo zatikia)	0,19	0,20
5.	Eskorak edo asnilak, hesitik kanpo. Bakoitza eguneko	0,11	0,11



2.2.2 eranskina- Ibilgailuen sarbidea espaloitik eta aparkamendu erreserba bide publikoan: aparkatze eskusiboa, ibilgailuen gelditzea, edozein eratako merkantzien karga lanak

	IBILGAILUEN SARBIDEA ESPALOTIK ETA APARKAMENDU ERRESERBA BIDE PUBLIKOAN	EUROAK 2022	EUROAK 2023
A	SARBIDEAK		
)	A.1Ibilgailuak egin, konpondu, garbitu edo koipeztatze lokalak ibilgailuentzat dituzten sarbide bakoitzeko	181,65	187,10
	A.2Komertzio, industria edo negozioren bat dagoen lokal edo finkako sarbidea, kamioi edo autobus sarbide edo irtenbide bezala erabiltzen bada	181,65	187,10
	A.3Garaje kolektiboetako sarbidea, lokalaren kapazitate osoaren arabera. Auto plaza bakoitzeko	9,15	9,40
B	IBIAK		
)	B.1Zerbitzu edo erabilera partikularra duten garajeak. Bideko metro linealeko edo zatikiko	81,2	83,65
	B.2Garaje kolektiboak. Bideko metro linealeko edo zatikiko.	120,05	123,65
	B.3Industri edo merkataritzako establezimenduak, metro linealeko edo zatikiko	137	141,10
C	TOKI ERRESERBA		
)	C.1Industri edo merkataritzako establezimenduak, metro linealeko edo zatikiko	68,5	70,55
	C.2Noizbehinkako beharrak eraginda, erabilera desberdinetarako tokia erresebatzea metro linealeko eta erreserba eguneko	1,55	1,60
D	Plaka berria	32,35	33,60



2.2.3- Azokak

2020eko hobariak kentzea proposatzen da.

Garapen ekonomikoa, enplegua, turismoa, merkataritza eta azoketako buruaren proposamenean oinarrituz, taulak eguneratzea proposatzen da.

Gaur egun horrela dago:

AZOKAK		EUROAK 2021	EUROAK 2022
1.	EUSKAL HERRIA PLAZAKO MERKATUA		
	1.1 Estalperik gabeko zonako postuak m ² -ko eta eguneko	1,40	1,45
	1.2 Plazako arkupetako saltokiak m ² -ko eta eguneko	2,65	2,70
	1.3 Nekazaritza makinatarako saltokia eguneko	7,10	7,30
	1.4 Estalperik gabeko zonako postuak m ² -ko eta hiruhilabeteko	15,35	15,75
	1.5 Plazako arkupetako saltokiak m ² -ko eta hiruhilabeteko	28,95	29,70
2.	BERDURA PLAZAKO MERKATUA		
	2.1 Barazki salmentarako postuak m ² -ko eta eguneko	1,70	1,75
	2.2 Lore salmentarako postuak m ² -ko eta eguneko	1,60	1,65
3.	ZERKAUSIKO MERKATUA		
	3.1 Gazta, arrautza, hegazti, barazki eta beste batzuk saltzeko industri postuak m ² -ko eta eguneko	2,35	2,40
	3.2 Tolosa inguruko baserritarren nekazaritza ekoizpenen salmenta txikia, tasak ordaintzetik salbuesirik dago. Salbuespen honekiko irizpidea Udalaren esku dago.	0,55	0,55
	3.3 Mahaien alokera, bakoitzeko eta eguneko	0,55	0,55
4.	ATADI KALEKO MERKATUA		
	4.1 Zuhaitzak eta / edo zuhaixkak salduz bi astez behin etortzen direnak (larunbatetan) eta garaian (abendutik martxora)	33,95	34,80
	4.2 Zuhaitzak eta / edo zuhaixkak salduz bi astetan bitan etortzen direnak (astelehena eta larunbatetan) eta garaian (abendutik martxora)	67,50	69,20



Horrela izatea proposatzen da:

AZOKAK		EUROAK 2022	EUROAK 2023
1.	EUSKAL HERRIA PLAZAKO MERKATUA		
	1.1 Salmenta postuak m ² -ko eta eguneko	1,45	1,5
	1.2 Salmenta postuak m ² -ko eta hiruhilabeteko	15,75	16,2
2.	BERDURA PLAZAKO MERKATUA		
	2.1 Barazki salmentarako postuak m ² -ko eta eguneko	1,75	1,8
	2.2 Lore salmentarako postuak m ² -ko eta eguneko	1,65	1,7
3.	ZERKAUSIKO MERKATUA		
	3.1 Gazta, arrautza, hegazti, barazki eta beste batzuk saltzeko industri postuak m ² -ko eta eguneko	2,40	2,45
	3.2 Baserritarren nekazaritza ekoizpenen salmenta postua jartzeko mahaien alokairua, mahaiko eta eguneko	0,55	0,55

APLIKAZIO ARAUAK

1. Euskal Herria plazako merkatuari dagozkion prezio publikoak hiruhilekoak izango dira eta hiruhilekoaren lehen egunean sortuko dira.
2. Berdura plazako azokari dagozkion prezio publikoak hiruhilekoak izango dira, eta hiruhilekoaren lehen egunean sortuko dira.
3. Zerkausiko azokari dagozkionez, saltzaileen kasuan, prezio publikoak hiruhilekoak izango dira, eta hiruhilekoaren lehen egunean sortuko dira. Ekoizleen kasuan, aldiz, prezio publikoak urtekoak izango dira, eta urtearen lehen egunean sortuko dira.

2.2.5- Udaleko bide publikoetako lurzoru, lur gain eta lur azpiaren ea gainerako lursail publikoen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia

Onartu berri da bide publikoan terrazak, salgai dauden produktuen erakustokiak eta beste elementu lagungarriak jartzea arautzen duen ordenantza.

Ordenantza horretan oinarrituz, eranskin honetako 2. puntua aldatzea proposatzen da:



- Tasa bakarra hilabeteko.
- Hiruhilabeteka ordainduko da terrazen tasa (egutegi fiskalean azaltzen dira epeak)
- %5eko hobaria izango dute tasa helbideratzen duten zergadunek

UDALEKO BIDE PUBLIKOETAKO LURZORU, LURGAIN ETA LURRAZPIAREN ETA GAINERAKO LURSAIL PUBLIKOEN ERABILERA PRIBATIBOA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA	EUROAK 2022	EUROAK 2023
1. Ondasun edo zerbitzuen salmenta automatikoko txanpon aparatuak, m2 edo zatikia hileko	14,80	15,25
2. Terraza eta instalazio osagarriak bide publikoan : mahaiak, aulkiak, upelak edo antzekoak, m2 edo zatikia: Tarifa 1: 2.1. Hilabeteko, metro karratuko		3,00
Tarifa 2: 2.1. Hilabeteko, metro karratuko		2,00
3. Zaborrak edo materialak gordetzeko edukiontzia, bakoitzeko eta eguneko	5,15	5,30
4. Zabor, lur, harea, hormigoi, etab. M2 eta eguneko	2,20	2,25
5. Lokal edo establezimendu barrutik zuzenean bide publikora egiten den edozein artikuluren salmentarekin egindako lurzoru aprobetxamendua, bide publikoa negoziaren zati osagarri bezala erabiliz, m2 edo zatikia hileko edo zatikiko	6,25	6,45
6. Kutxazain automatikoa, bakoitzeko eta urteko	386,25	397,85
7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, obren igogailu, obren modulo, enbor edo antzekoekin, m2 edo zatikia eguneko	0,27	0,28
8. Aurrekoetan ikusi ez diren kasuetan, urteko eta metro karratuko:		
Industriagunean	13,25	13,65
Industriagunea ez den lurzorua	16,10	16,58
Igogailuak	69,75	71,85
9. Hilerria Herentzia izaerako panteoi transmisioak, ezkontideen eta guraso eta seme-alaben artean Gainerako transmisioak	137,05 1.256,90	141,15 1.294,60
10. Kioskoak eta kabinak: 10.1. ONCEren kabinak eta argazkiak ateratzekoak. Bakoitzeko eta urteko 10.2. Prentsa kioskoak. Bakoitzak hileko	541,65 93,00	557,90 95,80
11. Belena patioan bizikleta bakoitzeko urtean	64,45	66,40



2.2.7- Ferialekua eta Zerkausi

FERIALEKUA eta ZERKAUSI		EUROAK 2022	EUROAK 2023
1.	Egun bateko erabilera	604,45	622,60
2.	Bigarren erabilera eguna %75	453,75	467,35
3.	Hirugarren erabilera eguna %50	302,5	311,60
4.	Laugarren erabilera eguna %25	151,15	155,70
5.	Laugarren erabilera egunetik gora, eguneko	107,15	110,35
6.	Karga-deskarga eta muntaketarako erabilitako eguna	53,35	54,95
7.	Stand-en akura, bakoitzeko	10,8	11,10
8.	Gastuak:		
	8.1 Argiak, orduko	15,45	15,90
	8.2 Berokuntza, orduko	30,85	31,80
9.	Zezen plaza, eguneko	100,00	103,00



2.2.8-Postuak herriko jaietan eta ferietan

3. puntuak, "talo salmenta" jartzea proposatzen da.

POSTUAK HERRIKO JAIETAN ETA FERIE TAN	EUROAK 2022	EUROAK 2023
1. Taberna, kafetegi eta antzerakoak (m ² edo zatikia, eguneko) Txurrotegi eta txokolategiak eta ore frijituko mahaiak:(m ² edo zatikia, eguneko)	9,50	9,8
2. Pastelak, taloak, gozokiak, fruta sikuak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak, etab. Saltzeko txosnak(m ² edo zatikia, eguneko)	6,55	6,75
3. Jaietako edonolako artikuluak saltzeko saltokiak (m ² edo zatikia, eguneko)	6,55	6,75
4. Tiro txosnak eta antzeko jokoak (m ² edo zatikia, eguneko) Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak (m ² edo zatikia, eguneko)	20,45	21,05
5. Zabuak, tresna hegalaria, kalesitak zaldiko-maldikoak, bunperrak eta, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak (m ² edo zatikia, eguneko)	3,85	3,95
6. Auto-txoke pistak (m ² edo zatikia, eguneko)	9,50	3,95
7. Ikuskizun eta antzerkiak(m ² edo zatikia, eguneko)	5,15	5,3
8. Zirkoak	2,65	2,75
9. Kultur Departamentuaren adostasunarekin	2,65	2,75
10. Kultur Departamentuaren adostasunik gabe	295,55	304,4
11. Iñauteriak eta San Juan jaietan, udalaren adostasunarekin (m ² edo zatikia, eguneko)	717,40	738,9
12. Auzoetako jaietan, udalaren adostasunarekin (m ² edo zatikia, eguneko)	0,40	0,4
13. Gabonetako karrusela	1,30	1,35
	155,05	159,7

2.2.9- Kultur Etxea eta Udalaren beste zenbait higiezin

KULTUR ETXE ETA UDALEKO BESTE ZENBAIT HIGIEZIN	EUROAK 2022	EUROAK 2023
1. ERABILERA OROKORRA		
1.1Kultur Etxeko Areto Nagusiaren erabilera, eguneko	154,80	159,45
1.2Kultur Etxeko 1, 2 eta 3 bilera aretoak eta Topagune aretoa, eguneko	95,20	98,05
1.3Kultur Etxeko 4 eta 5 bilera aretoak	76,10	78,40
1.4Auditorioa, eguneko	154,80	159,45
2. Leidor Aretoa		
2.1.Egun erdia (geh.5ordu)	583,60	601,10
2.2 Egun osoa (geh.10 ordu)	1.167,85	1.202,90
3. Oriaburuko areto nagusia, orduko	3,00	3,10



2.2.10- Ibilgailuen aparkaldi mugatua bide publikoan

IBILGAILUEN APARKALDI MUGATUA BIDE PUBLIKOAN	EUROAK2022	EUROAK2023
30 minutu baino gutxiago, minutuko	0,01	0,01
Gune txuria. Gehienez 20 minutu	0,20	0,20
<u>ALDE MARROIA</u>		
30 minutu	0,40	0,40
Ordu bat	0,95	1,00
Ordu eta erdi	1,45	1,50
Bi ordu	2,05	2,10
Salaketa baliogabetzea	11,90	12,25
<u>ALDE URDINA</u>		
30 minutu	0,10	0,10
Ordu bat	0,95	1,00
Ordu eta erdi	1,45	1,50
Bi ordu	2,05	2,10
Hiru ordu	4,70	4,85
Lau ordu	8,25	8,50
Salaketa baliogabetzea	11,90	12,25
<u>ALDE BERDEA</u>		
Goiza	2,00	2,05
Arratsaldea	2,00	2,05
Egun osoa	4,20	4,35
Salaketa baliogabetzea	11,90	12,25
<u>BERTAKOENTZAKO APARKALEKUA</u>		
Bertakoen txartela, € / urte	43,05	44,35
<u>PARKIMETROAK</u>		
Banakako parkimetroa, alokairuan	213,60	220,00
Karga-txartela	11,90	12,25
Txartelaren karga	32,35	33,30
Autokarabanentzako gunean aparkatzea eguneko	1,10	1,15



2.2.12- Herri baratza

Langabetuek tasa berezia dute.

5. artikulua onartzea proposatzen da:

“ Langabetuen tasa aplikatu ahal izateko, herri baratzaren erabiltzaileak eskaera egin beharko du

Atal honek ezarritakoaren arabera, 39/2015 Legearen 38. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 artikulua, Tolosako Udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez.

- Estatutuko Enplegu Zerbitzu Publikoa- Langabezi Datuen kontsulta”

IUARRAMENDIKO BARATZEN ERABILPENA	2022	2023
1.- Elbarriak	64,6	66,65
2.- Langabetuak	64,6	66,65
3.- Beste erabiltzaileak	129,2	133,10
4.- Elkarteak	129,2	133,10

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.



Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du hasierako onarpena ematea, 2023. urterako, ordenantza fiskal honen aldatetari: Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen Ordenantza Fiskala.

9. HASIERAKO ONARPENA EMATEA, 2023 ORDENANTZA FISKAL HONEN ALDAKETARI: ZERBITZUAK EMAN EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

Tolosako Udaleko Antolakuntzako Batzorde Informatiboak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen aztertu eta bozkatu ondoren emaitza honakoa hau izanda da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegui eta Jose Mari Villanueva Telleria,

Abstentzioa: Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udallbatzaren Osoko bilkurari::

IRIZPENA

LEHENA. - 2023. urteko urtarrilaren 1etik aurrerako ondoriotarako behean agertzen diren prezio publikoei onarpena ematea proposatzen da:

3.1. ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERAK EGITEAGATIKO ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

%3ko igoera



3.1.1. Zenbait udal zerbitzu

ZENBAIT UDAL ZERBITZU	EUROAK 2022	EUROAK 2023
A) MATERIALAK		
A.1 Hesi metalikoak; hesiko eta eguneko (3.40*2)	2,85	2,95
A.2 Hesi metalikoak, hesiko eta eguneko (2*1)	2,85	2,95
A.3 Taulatuak; m ² ko eta eguneko (2,5*3)	9,65	9,95
A.4. Mahaiak bi astorekin(2,50*080)	5,00	5,15
A.5. Sukaldea, eguneko	4,45	4,6
A.6. Buruhandiak, eguneko	5,60	5,75
A.7. Danborra, eguneko	5,60	5,75
A.8. Kaiola, eguneko	1,70	1,75
A.9. Panel txuriak, eguneko	2,25	2,3
A.10 Aulkiak; aleko eta eguneko	0,40	0,4
A.11. Karpa txikia, aleko eta eguneko	42,35	43,6
A.12 Karpa handia, moduloko eta eguneko	65,50	67,45
A.13. Eszenatokia	218,50	225,05
B) MAKINERIA ETA IBILGAILUAK		
B.1 Kamioi saskiduna orduko edo zatikiko	117,95	121,5
B.2 Beste kamioiak orduko edo zatikiko	101,75	104,8
B.3 Makineria oro har (dumper, zanpatzeko makina, etab.). Udalarekin zehazteko.		
C) PERTSONALA		
C.1. Gidaria, ordu bakoitza	44,90	46,25
C.2. Laguntzailea, ordu bakoitza	41,55	42,8

3.1.4 Zinea

LEIDOR ZINEMAREN ZERBITZUA SERVICIO DEL CINE LEIDOR	2022	2022	2023	2023
	ARRUNTA NORMAL	MURRIZTUA REDUCIDA	ARRUNTA NORMAL	MURRIZTUA REDUCIDA
1. Zine komertziala	5,30	4,20	5,50	4,30
2. Zine Foruma	4,20	2,10	4,30	2,20
3. Ikuslearen Eguna	4,20	4,20	4,30	4,30
4. Haurren saioak	4,20		4,30	

BIGARRENA.- Aldaketa hauek 30 laneguneko epean jendaurrean jartzea. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik



ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartua kontsideratuko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Aurkako botoak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu du hasierako onarpena ematea, 2023 ordenantza fiskal honen aldaketari: Zerbitzuak eman edo udal jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak arautzen dituen ordenantza.

10. ONARTZEA 2023. URTERAKO TAXIEN TARIFAK.

Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

Agitax, Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, 2023rako Tolosaldeko taxi tarifen proposamena aurkeztu zuen Tolosaldea Garatzen S.A.n

Lehiberri Zentroan, 2022ko urriaren 3an, Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak bildu ziren Agitax taxi elkarteak 2023 urterako aurkeztutako tarifa proposamenak aztertzeko.

Proposamenean datorren urteko tarifak kalkulatzeko aurtengoei %10,5eko igoera aplikatzea eskatu dute.

Aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, honakoa erabaki zuten bildutako ordezkariak:

- a) 2023 urterako 2022 urteko tarifei %10,5eko igoera aplikatzea.
- b) Ondorioz 2023ko taxi tarifak honela geldituko lirateke:

1. I Tarifa (lanegunetan 7tatik 22tara):
 - Bandera jaitsiera: 4,7709 euro
 - Kilometroko: 1,1713 euro
 - Itxarote ordua: 21,2373 euro



2. II Tarifa (egunero 22tatik 7tara, eta larunbata, igande eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan 7tatik 22tara):
Bandera jaitsiera: 5,3843 euro
Kilometroko: 1,7817 euro
Itxarote ordua: 31,2835 euro

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Patxi Amantegui, Jose Mari Villanueva Telleria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Estitxu Kortejarena Ugarte eta Ander Figuerido Zubiria.

Aho batez onartu da.

Hau dela eta, batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehen: Tolosaldeko Taxiaren Jardunbide Bereziko Zonaldeko ordezkariak egindako proposamena onartzea, eta honen arabera, 2023 urterako 2022 urteko taxi tarifei %10,50 iguera aplikatzea, tarifak honela utziz:

3. I Tarifa (lanegunetan 7tatik 22tara):
Bandera jaitsiera: 4,7709 euro
Kilometroko: 1,1713 euro
Itxarote ordua: 21,2373 euro
4. II Tarifa (egunero 22tatik 7tara, eta larunbata, igande eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan 7tatik 22tara):
Bandera jaitsiera: 5,3843 euro
Kilometroko: 1,7817 euro
Itxarote ordua: 31,2835 euro

Bigarrena: Erabakia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari bidaltzea

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.



Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** ditu 2023. urterako Taxien tarifak.

11.HASIERAKO ONARPENA EMATEA UDAL HONEN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDATZEKO 15/2022 ESPEDIENTEARI.

Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko, transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 15/2022 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena egin da.

Hau da proposamena:

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0800.629.01.330.00 2022	BESTELAKO INBERTSIOAK. KULTURAREN ARLOKO	90.000,00	61.000,00	29.000,00
	GUZTIRA	90.000,00	61.000,00	29.000,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0800.781.01.334.10 2022	KAPITAL TRANSFERENTZIAK ELKARTEEI	0,00	61.000,00	61.000,00
	GUZTIRA	0,00	61.000,00	61.000,00

Kontuhartzaile akzidentalak egindako txostenean adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:



Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Patxi Amantegui Zubiria, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balardi Tolosa.

Hau dela eta, batzorde honek

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.-Onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 15/2022 espedienteari, transferentzien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	90.000,00	61.000,00	29.000,00
	GUZTIRA	90.000,00	61.000,00	29.000,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00	61.000,00	61.000,00
	GUZTIRA	0,00	61.000,00	61.000,00

Bigarrena.-Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpenera eman dio udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 15/2022 espedienteari, kreditu transferentzien modalitatekoa.

12.HASIERAKO ONARPENA EMATEA UDAL HONEN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDATZEKO 16/2022 ESPEDIENTEARI.

Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko, kreditu gehigarrien modalitateko 16/2022 espedientearen berri eman da.

Hau da proposamena:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1300.480.01.172.00 2022	DIRULAGUNTZAK FAMILIEI	0,00	400,00	400,00
1 1000.481.01.341.00 2022	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK.KIROLAREN SU	345.000,00	20.000,00	365.000,00
1 0800.226.06.334.10 2022	JARD.SOZIO KULTURALAK.KULTURAREN SUSTAPE	250.042,00	25.000,00	275.042,00
1 0200.141.00.929.00 2022	BESTE PERTSONALA ZEHAZTUGABEKOAK	1.081.400,00	116.600,00	1.198.000,00
1 0300.160.01.920.00 2022	GIZARTE SEGURANT.KUOTAK. ADMINISTRAZIO OR	400.788,00	38.400,00	439.188,00
GUZTIRA		2.077.230,00	200.400,00	2.277.630,00

ESKU7283159-18f1-4796-9fec-fed63e1ee7c



Kodea	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2020	ALTXORTEKIKO GERAKINA	200.400,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			200.400,00

Kontuhartzaile akzidentalak egindako txostenean adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaien legeriarekin, zehazki, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Patxi Amantegui Zubiria, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balerdi Tolosa.

Hau dela eta, batzordeak honek

DIKTAMINATU DU

Lehenengoa.- Hasierako onarpena ematea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 16/2022 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoari, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, eta kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	155.000,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	25.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	20.400,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		200.400,00



FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	200.400,00
GUZTIRA		200.400,00

Bigarrena.-Hasierako onarpenaren ondoren, espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta, era berean, Udaletxeko iragarki taulan jarriko da. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 16/2022 espedienteari, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

13.HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2022KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEKO PROPOSAMENARI: 4-2022

Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 3.8 lerroa gehitzeko proposamena jaso da.



Dirulaguntza lerroa: 3.8 ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN EROSKETA

Eskumen arloa	Kultura eta aisialdia
Sektore hartzaileak	Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa
Helburuak	- Ondare historiko-artistikoa berreskuratzea - Ondare historiko-artistikoa zabaltzea - Herriko festa eta ospakizunetan erraldoi eta buruhandiak erostea eta baliatzea
Lortu nahi diren ondorioak	Tolosako Erraldoi eta Buruhandien parte hartzea bermatzea herriko festetan eta ospakizunetan.
Egikaritze epea	2022
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuaren aurreikuspenaren arabera. Finantziaketa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Ondarearen hasierako egoera dokumentatu.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0800.781.01.334.10	Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa	6 erraldoi eta 9 buruhandiren erosketak	61.000 euro	Izenduna	61.000 euro

Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzearen justifikazioa oinarritzen da 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan.

Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol



Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Patxi Amantegui Zubiria, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balardi Tolosa.

Hau dela eta, batzordeak hau

DIKTAMINATU DU

Lehena.-3.8 lerroa gehitzea 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

Dirulaguntza lerroa: 3.8 ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN EROSKETA

Eskumen arloa	Kultura eta aisialdia
Sektore hartzaileak	Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa
Helburuak	- Ondare historiko-artistikoa berreskuratzea - Ondare historiko-artistikoa zabaltzea - Herriko festa eta ospakizunetan erraldoi eta buruhandiak erostea eta baliatzea
Lortu nahi diren ondorioak	Tolosako Erraldoi eta Buruhandien parte hartzea bermatzea herriko festetan eta ospakizunetan.
Egikaritze epea	2022
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuaren aurreikuspenaren arabera. Finantziaketa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Ondarearen hasierako egoera dokumentatu.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0800.781.01.334.10	Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa	6 erraldoi eta 9 buruhandiren erosketak	61.000 euro	Izenduna	61.000 euro

Bigarrena.-Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:



Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio dirulaguntzen eranskinaren aldaketari:4-2022

14.ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN 2020-2022KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

2022ko dirulaguntzen eranskinean, honako aldaketa hauek sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
0500.480.01.231.40	FAMILIAK	Gizarte larrialdietako laguntzak	10.148 €	Legea/akordioa
1000.481.01.341.00	TOLOSA CF	Urteurrena	20.000 €	izenduna
0800.781.01.334.10	COMPARSA DE GIGANTES Y CABEZUDOS	Erraldoi eta buruhandien erosketa	61.000 €	izenduna
1300.480.01.172.00	FAMILIAK	Bedaio auzoan interneta zabaltzeko.	400 €	izenduna

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin dute, eta emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Patxi Amantegi Zubiria, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balerdi Tolosa.

Hori dela eta, Batzordeak

DIKTAMINATU DU

Lehena.-Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskineko aldaketa hauei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, eranskina honela uztea:



Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
0500.480.01.231.40	FAMILIAK	Gizarte larrialdietako laguntzak	257.668 €	Legea/akordioa
1000.481.01.341.00	TOLOSA CF	Urteurrena	20.000 €	izenduna
0800.781.01.334.10	COMPARSA DE GIGANTES Y CABEZUDOS	Erraldoi eta buruhaundien erosketa	61.000 €	izenduna
1300.480.01.172.00	FAMILIAK	Bedaio auzoan interneta zabaltzeko.	400 €	izenduna

Bigarrena.- 2022ko dirulaguntzen eranskinetako aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunez, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako Udalaren 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

15. ITXITAKO EKITALDIKO FAKTUREN ONARPENA.

Antolakuntza batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten den fakturak 2021eko ekitaldiko faktura data du eta 2022an jaso da, ondorengo taulan ikusten den moduan:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2022-09-21	2021-12-21	TOLOSAKO HODEIERZ ABESBATZA	12-2021	Gabonetako kontzertua San Frantzisko parrokian 2021/12/19	1.500 €



Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharrei dagokienez. 2021eko abenduaren 31an aipatutako obligazioa onartu gabe zegoen eta 2022ko aurrekontutik onartuko da. Beraz, faktura horiek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

Gaia aztertu ondoren bozkatu egin da eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Patxi Amantegui Zubiria, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balerdi Tolosa.

Hau dela eta batzordeak

DIKTAMINATU DU

Itxitako ekitaldiko faktura hau onartzea:

HARRERA DATA	FRA. DATA	HORNITZAILEA	FRA. ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2022-09-21	2021-12-21	TOLOSAKO HODEIERZ ABESBATZA	12-2021	Gabonetako kontzertua San Frantzisko parrokian 2021/12/19	1.500 €

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du itxitako ekitaldiko faktura.



16.ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAU ADMINISTRARI PLAZA BARNE SUSTAPENEZ HORNITZEKO DEIADIAREN ETETZEA INDARRIK GABE UZTEA.

Antolakuntza batzorde informatiboko 2022ko urriaren 19ko irizpena

AURREKARIAK

Lehena.- 2022ko uztailaren 28an, I. R.I. jaunak idatzia aurkeztu zuen Tokiko gobernu-batzarrak 2020ko urriaren 20ko bilkuran eta 2022ko apirilaren 12koan hartutako ebazpenak baliogabetzat jo daitezzen eskatzeko. Ebazpen horien bidez, hurrenez hurren, 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu zen, barne-sustapen bidez Administrazio Orokorreko lau administrari lanpostu hautatzeko, eta aipatu lanpostuak hornitzeko oinarriak onartu ziren eta hautaketa-prozesuaren deialdia egin.

Bigarrena.- Idatzi honen ondorioz Alkatetzak, probidentzi bidez, Giza Baliabideetako eta idazkaritzako zerbitzuei txosten juridikoa egiteko eskaera luzatu zuen eta bertan, besteen artean, zerbitzu juridikoen honako proposamena luzatu zuten:

***“LEHENA.**- Udal honetako Tokiko gobernu-batzarrak 2020ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzeari buruz hartutako erabakiak **ofizioz berrikusteko espedienteari hasiera ematea**, Administrazio Orokorreko administrari izateko lau lanpostu barne-sustapen bidez betetzeari dagokionez, eta prozesu hori arautzen duten oinarriei zein deialdiari dagokienez.*

***BIGARRENA.**- Alkatetzari ahalmena ematea Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzeko. Irizpen-eskaerarekin batera planteatutako gaiari dagokion dokumentazio guztia aurkeztuko da. Irizpena eskatzea erabakitzeko emandako ebazpenean bertan, ebazpena emateko epea etetea erabakiko da, eskaera egin eta irizpena jaso bitartean, Administrazio Publikoaren Administrazio prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikulua aurreikusten duen aukera baliatuta. Epearen etenaldiari dagokion Ebazpena eta txostena jasotzeko epea interesdunei jakinaraziko zaie.*

***HIRUGARRENA.**- Hautaketa-prozedura hori **ez etetea**, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso bitartean. Erabaki hau interesdunei jakinaraziko zaie.*

***LAUGARRENA.**-Erabaki hauek prozedurako interesdunei jakinaraztea, eta adieraztea prozeduraren edozein unetan alegazioak eta agiriak edo bestelako judizio-elementuak aurkez ditzaketela prozeduraren aurka, entzunaldiaren izapidea egin aurretik, eta organo eskudunak baloratuko dituela ebazpen-proposamena idaztean.”*

Hirugarrena.- 2022ko irailaren 29an, Ohiko Osoko Bilkurak ordea, lau administrarien hautaketa jardunbidea etetea erabaki zuen.



Laugarrena.- 2022ko urriaren 14an, I.R.I. jaunak bitarteko izaeraz betetzen ari zen errenta administrari lanpostuari uko egin zion 2022ko urriaren 16ko ondorioekin. Uko egin duen lanpostu hau, batetik, 2020ko urteko barne sustapeneko Lan Eskaintza Publikoan sartua dago eta bestetik, lau administrari plaza barne sustapenez hornitzeko deiladian izapidetu da, Osoko Bilkurak deialdi hau eten duen arte.

PROPOSAMENA

Administrazio Orokorreko lau administrari plaza barne sustapenez hornitzeko deialdiaren etetzea altxatzeko proposamena egiten da, deialdiaren izapidetza jarraituz, honako arrazoietan oinarrituta:

Lehena.- I.R.I. jauna deialdi honengatik kaltetua izan zitekeenaren arrazoiak bertan behera geratu dira, izan ere 2022ko urriaren 14an bitarteko izaeraz betetzen ari zen lanpostuari uko egin bait dio; plaza hau, lau administrari barne sustapenez betetzeko deialdian barne zegoen.

Bigarrena.- Ohiko Osoko bilkurak hautaketa jardunbidea etetzea erabaki zuenean, deialdia jadanik amaituta zegoen, hau da, hautaketa prozesuan bi izangaiek oposaketa fasea gainditu zuten eta lehiaketa fasean behin-behineko emaitzak zenbatuak eta argitaratuak zeuden.

Hirugarrena.- Gaur egun, kontuhartzailtza sailean hutsune bat sortu da "errenta administrari" lanpostuan, I.R.I. jaunaren uko egitearen ondorioz, eta nahiz eta udalak ez jakin hautaketa jardunbidean parte hartu duten bi izangaiek ze lanpostu aukeratuko duten, beharrezkoa ikusten da bitarteko plazak betetzeko dagoen zailtasunak kontuan hartuz, lau administrarien hautaketa jardunbidea amaitzea.

PROZEDURA

Lehena.- Apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretua, toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena, bere 51 artikuluan xedatzen du:

"Serán nulos los acuerdos adoptados en sesiones extraordinarias sobre asuntos no comprendidos en su convocatoria, así como los que se adopten en sesiones ordinarias sobre materias no incluidas en el respectivo orden del día, salvo especial y previa declaración de urgencia hecha por el órgano correspondiente, con el voto favorable de la mayoría prevista en el artículo 47.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril."



Bigarrena.- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duena, bere 83 artikuluan xedatzen du:

"Serán nulos los acuerdos adoptados en sesiones extraordinarias sobre asuntos no comprendidos en su convocatoria, así como los que se adopten en sesiones ordinarias sobre materias no incluidas en el respectivo orden del día, salvo especial y previa declaración de urgencia hecha por el Organo correspondiente, con el voto favorable de la mayoría prevista en el artículo 47.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril. 1. El orden del día de las sesiones será fijado por el Alcalde o Presidente asistido de la Secretaría. Asimismo, podrá recabar la asistencia de los miembros de la Comisión de Gobierno y, donde ésta no exista, de los Tenientes de Alcalde, y consultar si lo estima oportuno a los portavoces de los grupos existentes en la Corporación."

Hortaz, premiazko aitortpena egin beharko da puntu hau aztertu aurretik.

Honela, Tolosako udaleko Antolakuntza Batzordeak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Dena den, irizpena bozkatu aurretik gaiaren premia bozkatu da, honako emaitzarekin:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria, Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Tellería.

Abstentzioak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Estitxu Kortejarena Ugarte.

Ondoren, premia bozkatu eta onartu ondoren, irizpen proposamena bozkatu da, honako emaitzarekin:

Aldeko botoak: Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria eta Begoña Tolosa Mendia eta Jose Mari Villanueva Tellería.

Abstentzioak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Estitxu Kortejarena Ugarte.

Hortaz, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

Lehena.- Administrazio Orokorreko lau administrari plaza barne sustapenez hornitzeko deiadiaren etetzea altxatzea.



Bigarrena.- Akordioa interesatuei jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioak: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, udalbatzak gehiengoz onartu Administrazio Orokorreko lau administrari plaza barne sustapenez hornitzeko deiadiaren etetzea indarrrik gabe uztea.

17.BEHIN BETIKO ONARTZEA TOLOSAKO HIRI-EKONOMIA INDARBERRITZEKO DIRULAGUNTZA PROGRAMAKO OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA.

Herritarrak batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

AURREKARIAK:

Udalbatzak, 2022ko uztailaren 28an egindako Osoko Bilkurak, Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren ordenantzari hasierako onespina eman zion.

Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua xedatzen duena betez, informazio publikorako ikusgai jarri da hogeita hamar egunez, iragarpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, zehazki, 2022ko irailaren 26ra arte, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko. Ez da erreklamaziorik izan.

Erreklamaziorik izan ez den arren, Garapen ekonomiko, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Azoketako departamentuak, legeak emandako ahalmenak hala baliatuz, akats materialak zuzentzeko beharra ikusi du, kontraesanak ezabatzeko, betiere edukia aldatu gabe. Zehazki, honakoak dira argibide horiek:



Aurretik proposatutakoa	Proposatzen den argibidea
Oinarri orokorren 9. artikuluan, Onuradunaren betebeharrak eta eskubideei buruzkoan:	
<p>Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik erabiltzea, eta laguntza jasotzen den bitartean establezimendua azken bezeroarentzat zabalik edukitzea. • Dirulaguntza lokala eskuratu edo birgaitzeko jasotzen bada, jakinarazitako jarduera garatzeko erabili eta establezimendua azken bezeroarentzat zabalik eduki beharko da 5 urteko epean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.4 artikulua xedatzen duen moduan. • GUNE BIZIAK programaren irudia lokalaren erakusleihoan jartzea, ikusteko moduan. • Euskara eta hizkuntza-paisaia... 	<p>Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik erabiltzea, eta laguntza jasotzen den bitartean establezimendua azken bezeroarentzat zabalik edukitzea. • Dirulaguntza lokala eskuratu edo birgaitzeko jasotzen bada, jakinarazitako jarduera garatzeko erabili eta establezimendua azken bezeroarentzat zabalik eduki beharko da 5 urteko epean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.4 artikulua xedatzen duen moduan. Dirulaguntza alokairua finantzatzeko jasotzen bada, aldiz, gutxienez, urtebeteko epean. • Udalari jakinaraztea onuradunak jarduera etetea aukeratu badu, etenduraren unetik jasotako zenbatekoa itzuliz. Ondorio horietarako, ulertuko da jarduera etenda dagoela establezimenduak publikoarentzat itxita hilabete baino gehiago badarama, salbu arrazoi justifikatua. • BERRIZ TOLOSA, EKIN eta GUNE BIZIAK programaren irudia lokalaren erakusleihoan jartzea, ikusteko moduan. 1. Euskara eta hizkuntza-paisaia...



II. eranskineko 12. Artikulua, onuradunaren betebeharrei buruzkoa, ezabatzea proposatzen da, jadanik oinarri orokorren 9. artikuluan aipatzen delako:

	<p>12. artikulua. Onuradunaren betebeharrak</p> <p>Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:</p> <p>Laguntzaren xede den ekintzailtza proiektua gutxienez urtebetez altan mantendu beharko da.</p>
--	--

TXOSTEN JURIDIKOA:

Horren harira, Udaleko Administrazio Orokorreko Teknikariak, 2022ko urriaren 14an igorritako txosten juridikoan honakoa adierazi du egindako proposamenaren inguruan:

“Zuzenketak ofizioz egitearen inguruan, Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenari buruzkoak, 190.2. artikuluan honakoa xedatzen du: *“Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak”*.

Beraz, proposatutako aldaketak zuzenketa bati erantzuten dioten ala ez ikusi behar da, hori izango bailitzateke jendaurreko informazioaren fasean zuzenketa bat egiteko muga.

Erakuntza materialaren edo egitatezko errorearen ezaugarriak, besteak beste, Auzitegi Gorenaren 2001eko ekainaren 18ko epaian adierazi dira. Epai horren arabera, "kontuan hartu behar da errore materialaren edo egitatezko errore horren ezaugarria dela nabarmena, agerikoa, eztabaidaezina eta agerikoa izatea berez, arrazoibide handiagorik behar izan gabe, eta" prima facie "kanporatzea bere kontenplazio hutsagatik (kalifikazio juridikoaren izaeraren aurrean, kalifikazio juridikoan oinarritutako adierazpen bat du atzetik, zuzenbideko errorea duena); beraz, errakuntza materialak edo egitatezkoak zuzentzeko prozedura-mekanismoa aplikatu ahal izateko, honako inguruabar hauek bete behar dira funtsean:

- 1) Izenen, daten, eragiketa aritmetikoen edo dokumentuen transkripzioen oinarritzko huts hutsak izatea.
- 2) Akatsa hautemateko, kontuan hartzea soilik ohartarazten den administrazio-espeditentearen datuak.



3) Akatsa nabarmena eta argia izatea, aplikatu beharreko arau juridikoen interpretazioetara jo beharrik gabe.

4) Administrazioaren kabuz ez berrikustea administrazio-egintza irmo eta adostuak.

5) Egintzaren zentzuan funtsezko aldaketarik ez gertatzea (izan ere, ez dago akats

materialik hori hautemateak balioespen-judizio bat edo kalifikazio juridikoko eragiketa bat eskatzen duenean).

6) Administrariaren subsintentzia ez jasatea, hau da, eskubide subjektiboak sortzen dituen aldetik, hura deuseztatzea edo errebotatzea ez eragitea, eta beste oinarri batzuen gainean eta ukituarentzat beharrezko bermerik gabe beste bat sortzea; izan ere, egintza zuzentzaile administratiboak zuzendutako egintzari dagokion xedatze-, substantibo- eta suntsiarazpen-eduki bera erakutsi behar du, eta Administrazioak ezin du benetako berrikuspen bat estali, ofizioz zuzentzeko duen ahala aitzakiatzat hartuta.

7) Irizpide murriztaile sakon batekin aplikatzea

Planteatutako aldaketak aipatutako txosten teknikoaren arabera kontraesanak ezabatzeko egiten dira eta bere edukia ez dute aldatzen”.

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Xarles Iturbe, Begoña Tolosa, Izarne Iglesias, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Ander Figuerido eta Xabier Martinez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

“**LEHENA.-** Oinarri orokorren 9.artikuluko akats materialak zuzentzea, eta II. eranskineko 12.artikulu errepikakorra ezabatzea, kontraesanak ezabatzeko, betiere edukia aldatu gabe, zehaztapenak txertatuz, modu honetara:



Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

- Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik erabiltzea, eta laguntza jasotzen den bitartean establezimendua azken bezeroarentzat zabalik edukitzea.
- Dirulaguntza lokala eskuratu edo birgaitzeko jasotzen bada, jakinarazitako jarduera garatzeko erabili eta establezimendua azken bezeroarentzat zabalik eduki beharko da 5 urteko epean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.4 artikulua xedatzen duen moduan. **Dirulaguntza alokairua finantzatzeko jasotzen bada, aldiz, gutxienez, urtebeteko epean.**
- Udalari jakinaraztea onuradunak jarduera etetea aukeratu badu, etenduraren unetik jasotako zenbatekoa itzuliz. Ondorio horietarako, ulertuko da jarduera etenda dagoela establezimenduak publikoarentzat itxita hilabete baino gehiago badarama, salbu arrazoi justifikatua.
- **BERRIZ TOLOSA, EKIN eta GUNE BIZIAK** programaren irudia lokalaren erakuslehoan jartzea, ikusteko moduan.
- Euskara eta hizkuntza-paisaia...

12. artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

Laguntzaren xede den ekintzaitetza proiektua gutxienez urtebetez altan mantendu beharko da.

BIGARRENA.- Akats materialak zuzendu ostean, Tolosako hiri-ekonomia indarberritzeko dirulaguntza programaren ordenantzaren aldaketa behin betikoz onartzea, ondoren Udaltzarako behin betikoz onar dezan, modu honetara:



AURKIBIDEA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrien xedea
2. artikulua. Onuradunak
3. artikulua. Onuradunen betekizunak
4. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua, lekua eta epea
5. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko agiriak
6. artikulua. Akatsak zuzentzea
7. artikulua. Balorazio-irizpideak
8. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea
9. artikulua. Onuradunaren betebeharrak eta eskubideak
10. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea
11. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna
12. artikulua. Aplikatu beharreko araudia
13. artikulua. Ez-betetzeak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko-prozedura
14. artikulua. Arau-hauste administratiboak
15. artikulua. Administrazio-zehapenak
16. artikulua. Datu pertsonalen babesa
17. artikulua. Ahalmena

AZKEN XEDAPENA

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) inguruan

ERANSKINAK

- I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa sustatzeko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak – BERRIZ TOLOSA
- II. eranskina: Tolosan enpresaritzak ekimen bat abiarazteko ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak – EKIN
- III. eranskina: Kale espazioak eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko programa - GUNE BIZIAK
- IV. eranskina: Tolosan enpresaritzak ekimen bat abiaraztea – EKIN programan onartzen diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) talde eta epigrafeak



ARRAZOIEN AZALPENA

Apirilaren 7ko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak 17.1 artikuluan jasotzen du udalerriko eskumen propioen artean daudela, batetik, tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta, bestetik, barne-merkataritza antolatzea eta kudeatzea; zentzu horretan, baita txikizkako merkataritza planifikatzea eta antolatzea ere, hirigintza-antolamenduko irizpideei eta lurzoruaaren arazoizko erabilerari erantzunez.

Alor horretan, Tolosako Udalak legeak zehazten dituen eginkizunak gauzatu nahi ditu, are gehiago gaur egungo errealitatea kontuan izanda. Izan ere, hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak eraldaketa prozesu sakon batean murgilduta daude hainbat erronkari erantzun behar baitiote: kontsumo ohitura berrietara egokitzea; informazio eta komunikazio teknologia berriak txertatzea; omnikanalitatea garatzea; errelebo faltari eta ekintzailetasun tasa baxuari erantzutea; kale espazioak egokitzea; lokal hutsen kudeaketa, e.a.

Eraldaketa horiek guztiek hiri-ekonomiako sektoreen biziraupena baldintzatzen dute, eta faktore horietan eragitea ezinbestekotzat jotzen da horien eragin negatiboa gutxitzeko, eta guztiaren gainetik udalerriko bizi-kalitatea eta kohesio soziala bermatzen dituen merkataritza eredua (hiri-ekonomia) mantentzeko. Horregatik, Administrazioaren ardura da, besteak beste, ekintzaile eta negozio berriei babesa eskaintzea, bertako garapen ekonomikoa lehenetsiz.

Bestalde, hiri-ekonomian planifikazio falta da enpresen itxiera eragiten duen faktore nagusietako bat. Enpresen eskualdaketarako plan batekin eduki behar ditu enpresa aurrera segitzeko prozesuak eta, aldi berean, kudeatzaileen aldaketak eragindako nahasmendua zuzentzeko tresnak eta egutegia. Ildo horretan, Administrazioak erraztu eta gidatu behar ditu ibilbide horiek, sektorearen biziraupena berma dadin.

Itxiera horien ondorioz, gainera, geroz eta lokal huts gehiago aurki daitezke herriko kaleetan, bai Zabalgunean (% 56,2), bai Alde Zaharrean (% 43,8) (Siadeco, 2019). Alde Zaharreko lokalen kasuan, gainera, zailtasun gehigarriak izaten dituzte bertan jarduera berri bat martxan jartzerako orduan, besteak beste, lokalen ezaugarriengatik eta Alde Zaharrak berezkoak dituen arauengatik.

Gainera, lokal hutsek segurtasun eta zikinkeria arazo ugari sortzen dituzte merkataritza guneetan. Horri dagokionez, kaleetan jarraikortasuna lortzeak, hau da, lokal hutsik gabeko eremua izateak eta merkataritza eremu erakargarri eta atsegina lortzeak sektorearentzako eta bizilagunen bizitzarako onurak dakartzate.

Hiri-ekonomia osatzen duten sektoreak indarberritzeko eta jasangarri egiteko, hortaz, ezinbestekotzat jotzen da Ordenantza honetan araututako dirulaguntza lerroak xedatzea,



zeinen bitartez bultzatzen diren ekintzaile eta negozio berrien abiaraztea, negozioen arteko eskualdaketa eta merkataritza-establezimenduen erakargarritasuna.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Dirulaguntza hauen oinarri arautzaileen xedea

Oinarri hauen xedea da dirulaguntzak emateko arauak ezartzea hiri-ekonomiaren esparruko jarduera ekonomikoa, enplegua eta lehiakortasuna mantentzeko, tokiko jarduera sustatuz eta indarberrituz, enpresa-ekimen berriak abiarazteko eta kale espazio hutsak dinamizatzeko.

Oinarri hauetarako hiri-ekonomiaren esparruan sartuko dira merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismo sektoreko jarduerak.

Dirulaguntzen banaketa, ondoren jasotzen diren eta eranskin gisa identifikatzen diren oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera egingo da:

- I. eranskina: Negozioen arteko eskualdaketa - BERRIZ TOLOSA programa.
- II. eranskina: Tolosan enpresaritza ekimen bat abiaraztea – EKIN programa.
- III. eranskina: Kale espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzea – GUNE BIZIAK programa.

2. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Kasuan kasu, hiru onuradun profil daude:

- Ekintzaileak.
- Merkataritza lokal hutsen jabeak.
- Tolosan beste merkataritza saltoki baten jabeak.

3. artikulua. Onuradunen betekizunak

Onuradunek bete beharreko baldintza orokorrak honako hauek dira:

1. Egunean izatea Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta Tolosako Udalarekiko zerga-betebeharretan.
2. Sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalik ez izatea dagokion zehapenean ezarritako aldian. Ezta sexuagatik edo 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio-faktoreengatik diskriminatzaile den jarduera, programa edo zerbitzurik garatzea ere, 1/2022, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege



Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.

3. Ez egotea Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako gainerako egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

Dirulaguntza lerro bakoitza eskatzeko baldintza zehatzak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek ezarritakoak izango dira.

4. artikulua. Eskabideak aurkezteko modua, tokia eta epea

Hautaketa-prozeduraren modalitatea argitaratutako deialdian finkatuko da. Deialdi eta hautaketa-prozedura bakarren bidez, edo deialdi irekiaren bidez izango da, dirulaguntzen ordenantza orokorraren baitan.

- Aurkezteko modua:

Interesdunak dagokion dirulaguntza lerroak duen eskabide orria aurkeztu beharko du.

- Aurkezteko lekua:

Pertsona fisikoek honela aurkeztu ahal izango dituzte eskabideak:

- a) Aurrez aurre, UDATEn.
- b) Erregistro elektronikoaren bidez.
- c) Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezarritako moduan.
- d) Indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan.

Erakunde edo pertsona juridikoen kasuan, Tolosako Udalaren erregistro elektronikoan aurkeztu beharko dira nahitaez, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan adierazitako gainerako erregistro elektronikoetan ere.

- Aurkezteko epea:

Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako urteko deialdian finkatuko da.

5. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko agiriak

Interesdunak jarduera bakoitzerako aurkeztu beharreko dokumentazioa eranskin bakoitzean zehaztuko da.

39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, administrazio jarduleak dagoeneko bere esku dauden edo edozein administrazioekin egin dituen dokumentuak kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Kasu horretan, arrazoia justifikatu beharko du, eta dagozkion dokumentuak aurkeztu, izapidetzeko.



Ildo horretan, eta hala badagokio, prozedura ebazteko beharrezkoak diren dokumentu hauek kontsultatuko dira datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez:

- JEZren epigrafean alta ematea.
- Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Tolosako Udalarekiko zorrak egunean dituela.
- Lizentzia indarrean izatea edo legeztatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.

Arazo teknikoak medio, kontsulta ezin bada egin datu-bitartekaritzarako plataformen edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoko batzuen bidez, salbuespen gisa, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dokumentazioa aurkezteko.

6. artikulua. Akatsak zuzentzea

Eskaera-orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo osatu gabe badago, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko.

Emandako epea igaro eta akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua. Balorazio-irizpideak

Dirulaguntzen eskaerak baloratzeko irizpideak oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako berariazko oinarriek dirulaguntza lerro bakoitzean ezarritakoak izango dira.

8. artikulua. Ebazpenaren edukia eta jakinarazteko epea

Dirulaguntza emateko ebazpenak adierazi beharko du zer pertsonari ematen zaion eta zer zenbateko duen.

Ebazpenak emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 25.5 artikulua xedatzen duen moduan.

Emakidari buruzko behin betiko ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

9. artikulua. Onuradunaren betebeharrak eta eskubideak

Honako hauek dira onuradunaren betebeharrak:

- Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik erabiltzea, eta laguntza jasotzen den bitartean establezimendua azken bezeroarentzat zabalik edukitzea.



- Dirulaguntza lokala eskuratu edo birgaitzeko jasotzen bada, jakinarazitako jarduera garatzeko erabili eta establezimendua azken bezeroarentzat zabalik eduki beharko da 5 urteko epean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.4 artikulua xedatzen duen moduan. Dirulaguntza alokairua finantzatzeko jasotzen bada, aldiz, gutxienez, urtebeteko epean.
- Udalari jakinaraztea onuradunak jarduera etetea aukeratzen badu. Ondorio horietarako, ulertuko da jarduera etenda dagoela establezimenduak publikoarentzat itxita hilabete baino gehiago badarama, salbu arrazoi justifikatua.
- BERRIZ TOLOSA, EGIN eta GUNE BIZIAK programaren irudia lokalaren erakuslehoan jartzea, ikusteko moduan.
- Euskara eta hizkuntza-paisaia: oharra, seinaleak, kartelak eta kanpoko gainerako komunikazio orokorrak (publizitatea, marketina eta ingurune digitala) eta barrualdeko komunikazio finko eta iraunkorrak gutxienez euskaraz egingo dira.
- Diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkera ez-sexista erabili beharko dute, emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestu beharko dute, eta berdintasun-balioak dituen irudia sustatu beharko dute.
- Hondakinak gaika sailkatzea eta dagokien lekuan uztea, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen jarraibideei jarraituz.
- Udalari gastu bererako beste dirulaguntza edo laguntzarik jasoz gero, horren berri ematea.
- Oro har, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako beste edozein.
- Gainera, oinarri orokor hauekin batera doazen eranskinetako oinarri espezifikotik ezarritakoa bete beharko dute.

Honako hauek dira onuradunaren eskubideak:

- Euskara Sailak sustatutako Merkataritza programan parte hartzeko lehentasuna.

10. artikulua. Emandako dirulaguntzen publizitatea

Udalak egingo du emandako dirulaguntza guztien publizitatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikuluan aurreikusten den moduan.

11. artikulua. Laguntzak elkartzea eta bateragarritasuna

Oinarri hauen xede diren dirulaguntzak beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, betiere guztiak batuta, diruz laguntzen diren gastuen kostua gainditzen ez bada.



Hemen arautzen diren dirulaguntzen zenbatekoak ez du inola ere, isolatuta edo beste administrazio publiko edo erakunde publiko edo pribatuen dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu behar.

Onuradunak arau honetan erregulatutako xede bererako dirulaguntza lortu edota eskatzen badu, modu frogagarrian jakinarazi beharko dio Udalari.

Gainfinantzaketa gerora gertatzen bada, eta dirua itzultzeko obligazioen bat baino gehiago izanez gero, onuradunak dagokion parte proportzionala itzuli beharko du Tolosako Udalak egin dion ekarpena aintzat hartuta.

Laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero eta, nolana ere, beste administrazio edo erakunde publiko ala pribatu batzuek, naziokoek edo nazioartekoek, emandako laguntzak edo dirulaguntzak lortuz gero, emate-ebazpena alda daiteke.

12. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Testu honetan araututako dirulaguntzek arau xedapen hauetan ezarritakoa bete behar dute:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 1/2022, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadi toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra, 2017ko uztailaren 7koa.
- 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

13. artikulua. Ez-betetzeak dirulaguntzen esparruan. Zigortzeko prozedura

Oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako edozein betebeharrak ez betetzeak dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako zenbatekoa baliogabetu edo itzuli beharko da.

Itzulketaren prozedura ofizios hasiko da, laguntza edo dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza errebokatzea, murriztea edo itzultzea erabaki daiteke, arrazoiak emanez. Prozedura izapidetzean, interesdunak hura ezagutzeko duen eskubidea bermatu behar da beti.

14. Arau-hauste administratiboak

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.



Arinak:

- Hondakinak gaika ez sailkatzea eta dagokien lekuan ez uztea, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko Mankomunitatearen jarraibideei jarraituz.
- GUNE BIZIAK programaren irudia lokalaren erakusleihan ez jartzea.
- Oharrak, seinaleak, kartelak eta kanpoko gainerako komunikazio orokorrak (publizitatea, marketina eta ingurune digitala) eta barruko komunikazio finko eta iraunkorrak gutxienez euskaraz ez egitea.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 56. artikuluan ezarritako arau-haustekak.

Larriak:

- Hizkuntza sexista, emakumeen irudi diskriminatzailea edo estereotipo sexistak erabiltzea diruz lagundutako jardueraren esparruan sortutako dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan.
- Udalari ez jakinaraztea gastu bererako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso direla.
- Urte berean gutxienez bi arau-hauste arin berriro egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu bada.
- Arau-hauste larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 57. artikuluan jasotzen dira.

Oso larriak:

- Diruz lagundutako lokala hasieran jakinarazitako jarduera garatzeko bakarrik ez erabiltzea.
- Udalari ez jakinaraztea onuradunak jarduera etetea erabakitzen badu, eta etetearen unetik jasotako zenbatekoa ez itzultzea.
- Urte berean gutxienez bi arau-hauste larri berriro egitea, ebazpen irmoz hala deklaratu bada.
- Arau-hauste oso larriak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 58. artikuluan jasotzen dira.

15. Dirulaguntzen arloko administrazio-zehapenak

Adierazitako arau-hausteei honako zehapen hauek dagozkie:

- Zehapenak arau-hauste arinengatik: arau-hauste arin bakoitzari 75 euro eta 750 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 61. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa izan ezik.
- Zehapenak arau-hauste larriengatik: arau-hauste larri bakoitzari 750 eta 1.500 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 62. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa izan ezik.
- Zehapenak arau-hauste oso larriengatik: arau-hauste oso larri bakoitzari 1.500 euro eta 3.000 euro arteko isuna ezarriko zaio, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 63. artikuluan aurreikusitako zehapenatarako xedatutakoa izan ezik.

16. artikulua. Datu pertsonalen babesari

Datu pertsonalen babesari buruz, xedapen hauek aplikatuko dira besteak beste:



- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Udalak izango du datu pertsonalen tratamenduaren ardura. Tratamendu horren helburua dirulaguntzen ondoriozko informazio pertsonala kudeatzea izango da, horretarako zilegitasuna aipatutako legedian jasota dagoelarik.

Herritarrak eskubide hauek izango ditu: datuetara irispidea izateko, datuak zuzentzeko, ezabatzeko, tratamenduaren aurka egiteko eta hura mugatzeko eskubideak.

17. artikulua. Ahalmena

Ahalmena ematen zaio alkateari Ordenantza honetan edozein motatako aldaketak sartzeko, baldin-eta aldaketa horiek badira nahitaez aplikatu beharreko arau-aldaketak eta berekin dakartzatenak baldintzak aldatzea edo zenbatekoak edo portzentajeak automatikoki ordenatzea. Aldaketa horiek berehala jakinarazi behar dizkio osoko bilkurari, berretsi ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) inguruan

Ekintzaile batek EKIN programarako dirulaguntza jasotzeko eskaera egiten badu, eta IV. eranskinean zehazten diren Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (JEZ) talde edo epigraferen batean altan emanda ez badago, Batzorde Teknikoak ahalmena izango du erabakitzeke proiektua onartu edo ez, ekintzaileak aurretik justifikatu ostean; betiere, jarduera Ordenantza honetan jasotzen den hiri-ekonomiako sektoreen batekoa bada, eta ekintzailea, dirulaguntza eskaera egiteko unean, JEZn alta emanda badago.



I. ERANSKINA: NEGOZIOEN ARTEKO ESKUALDAKETA SUSTATZEKO EMATEN DIREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – BERRIZ TOLOSA

1. artikulua. Helburua

BERRIZ TOLOSA programaren helburua da enpresen eskualdaketa egin eta Tolosako negozio baten ardura hartu nahi duten pertsoneri dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak

Honen bitartez, negozioaren ardura hartu duten pertsoneri diruz lagunduko zaizkie negozioa garatuko den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak.

3. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua. Onuradunen betekizunak

Lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako dirulaguntza eskuratzeko bete beharreko baldintzak honako hauek dira:

1. Aldez aurretik, Eusko Jaurlaritzaren enpresa-jarraipeneko BERRIZ ENPRESA programan parte hartu izana, Gipuzkoako Ganberarekin lankidetzan, eta programan ezarritako baldintzak betetzea.
2. Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.
3. Eskualdatutako negozioaren jarduera hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, ostalaritza edo ostatua.
4. Lizentzia indarrean izatea edo legezatzeko izapidean dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria, Udalak horretarako egindako errekerimenduei garaiz eta behar bezala erantzun ondoren.
5. Dirulaguntza eskatzerako orduan, Jarduera Ekonomiko gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea.
6. Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.
7. Azken 60 hilabeteen aurretik Tolosako Udalaren aldetik helburu bererako edo antzekorako dirulaguntzarik jaso ez izana. Baldintza hori pertsona juridikoari eta hura osatzen duten pertsona bakoitzari buruzkoa izango da.
8. Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez izatea.
9. Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza-ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu, laguntza emateko, kasu bakoitza banan-bana aztertuko da, eta, nolahi ere, negozioa transferitzeko arrazoi justifikatua egon beharko du.

5. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa



a) Alokairu-gastuetarako: eskatzaile bakoitzari gehienez ere 12 €/m² emango zaizkio, gehienez honako zenbateko hauekin, BEZa kontuan izan gabe:

- Lehen urtean, 450 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 75.
- Bigarren urtean, 300 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 50.
- Hirugarren urtean, 150 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 25.

Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €, bigarrean, 3.600,00 € eta hirugarrean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiona izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko hori ere kontuan hartuko da.

b) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada: lokala erosiz gero, metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko prezioa 1.000 €/m² izango da. Lokala erosteko dirulaguntza prezioaren % 10ekoa izango da, zergak alde batera utzita, eta gehienez 10.800 eurokoa.

Nolanahi ere, onuradun bakoitzeko emandako laguntzaren zenbateko osoa honela banatuko da: % 50 lehen urtean, % 30 bigarren urtean eta % 20 hirugarren eta azken urtean.

Alokairu edo erosketa kontratuan agertzen den egunetik aurrera ordainduko da dirulaguntza.

Laguntzaren eskatzaileak bere gain hartzen badu bi establezimendu alokairuan edo erosketan dituen negozio bat, bigarren establezimenduaren laguntza % 50ekoa izango da, eta guztira bigarren establezimendu horrengatik 5.400,00 € jaso ahal izango ditu laguntza jasotzen duen hiru urteetan.

Kasu horretan, establezimendu bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga banaka kalkulatu da, aurrez ezarritako baldintzetan.

Nolanahi ere, laguntzak aurrekontua erabilgarri dagoen heinean emango dira.

6. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifikoak (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizios kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahdunen kasuan, ordezkaritza agiria.



4. Ondasun-erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eratze-eskrituraren edo -agirien fotokopia, eta, hala badagokio, arautzen duten estatutuena, udaletxean jasota ez badaude.
5. Ganberak bermatutako eskualdatze-ziurtagiria.
6. "Jardueraren titulartasun aldaketaren jakinarazpena" izeneko udal inprimakia (aurreko titularrak eta titular berriak sinatuta), Hirigintzako sailean aurretiaz aurkeztu ez bada.
7. Osasun departamentuko Elikagaien Establezimenduen Erregistroan titularitate aldaketa egin delako egiaztatzea (hala badagokio).

a) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua.

b) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako erosketa-kontratua.

Banku-transferentziaren egiaztatzea, eskuratze-prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duena.

7. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak

Dirulaguntza emateko prozedura lehiarik gabeko norgehiagoka izango da. Deialdia organo eskudunak onartuko du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Hautaketa-irizpidea eskabideak aurkezteko hurrenkera kronologikoa izango da, betiere pertsona edo erakunde eskatzaileak ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu eta kreditu nahikoa badago.

8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak

- Instrukzioa:

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismo eta Azoka Sailari dagokio.

- Balorazioa:

Ardura duen Sailak baloratu beharko ditu eskabideak, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazioa eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.



Edozein kasutan, Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azoka Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.

- Ebazpena:

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

9. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.

Salbuespen izango dira atzera eraginkortasunarekin onartutako eskaerak. Hauetan ez da beharrezkoa izango dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hastea.

10. artikulua. Dirulaguntza zurrizko prozedura eta epeak

Dirulaguntzaren zurrizko aurkezteko epea sei hilean behin izango da dirulaguntza ematen denetik 3 urteko epea bete arte.

Seihilekoa igaro ondoren, aurreko seihilekoari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da. Zehazki, honako hau:

a) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.
2. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

b) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada:

1. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
2. Erosketa mailegu bidez egiten den kasuetan: maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria ere aurkeztu beharko da.

11. artikulua. Ordainketa prozedura

Dirulaguntza sei hilero ordainduko da, 3 urteko epea bete arte, dagokion egiaztagiriak aurkeztu ondoren.



II. ERANSKINA: TOLOSAN ENPRESARITZA EKIMEN BAT ABIARAZTEKO EMATEN DIREN DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK – EKIN

1. artikulua. Helburua

EKIN programaren helburua da Tolosako hiri-ekonomiako sektoreetako batean enpresaritza ekimen bat abiarazteagatik pertsoneri dirulaguntzak ematea.

2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak

Honen bitartez, hiri-ekonomia sektoreko ekimen berriak martxan jartzeko jarduketa hauek lagunduko dira diruz:

- a) Tolosako Alde Zaharrean enpresa ekimena garatu ahal izateko beharrezkoa den lokala birgaitzeko egindako gastuak.
Kasu honetan, orokorrean onartuko dira merkataritza establezimenduaren barrualdea edota kanpoaldea moldatzeko, berritzeko edo handitzeko instalazioak eta obrak, baita oztopo arkitektonikoak ezabatzeke egindako eraberritzeak ere, mugikortasun murriztua duten pertsonen irisgarritasuna hobetzeko helburua badute.
- b) Tolosako herrian enpresa ekimena garatuko den lokalaren alokairu edo erosketa gastuak.

Enpresa ekimena Tolosako Alde Zaharrean kokatuz gero, bateragarriak izango dira birgaitzeko eta alokairu edo erosketa gastuetarako emandako dirulaguntzak.

Dauden negozioen lekualdaketak laguntza hauen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira.

Ekintzaileak aldeztu aurretik negozio bat martxan badu udalerrin berean, 4.b artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzenean soilik lagunduko da diruz jarduerak.

3. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

4. artikulua. Onuradunen betekizunak

a) Ekintzaile berrien ezaugarriak eta jarduerari dagokienez:

1. Enpresa-ekimen berria hiri-ekonomiako sektore hauetako batekoa izatea: merkataritza, hiriko merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak, ostalaritza edo turismoa.
2. Enpresa ekimenaren jarduerak nagusia 4. eranskinean jasotzen den Jarduera Ekonomiko gaineko Zergako epigraferen batean alta emanda egotea (JEZ).
3. Kalendar bertan kokatutako txikizkako jarduerak bat izango da, azken bezeroarekin edo udalerriko herritarrekin harreman zuzena duena.
4. Jarduera Tolosan kokatutako establezimendu batean egotea.



5. Negozio plan bideragarria eta amaitua Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzailletza Sailak oniritzia emanda.
6. Azken 60 hilabeteen aurretik Tolosako Udalaren aldetik helburu bererako edo antzekorako dirulaguntzarik jaso ez izana. Baldintza hori pertsona juridikoari eta hura osatzen duten pertsona bakoitzari buruzkoa izango da.
7. Saltzaile edo errentatzaile gisa jarduten duen pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide ez izatea.
8. Lokala saltzen edo alokatzen duen pertsonarekin ezkontza-ahaidetasuneko edo odol ahaidetasuneko lehen edo bigarren mailako ahaidetasuna badu, laguntza emateko, kasu bakoitza banan-banan aztertuko da, eta, nolahi ere, arrazoi justifikatua egon beharko du.
9. Jarduerak ezingo dira kokatu:
Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Berezian aurreikusitako ekintza isolatuaren objektu izateagatik ordenazioz kanpokotzat deklaraturako eraikinetan.
Aurri-egoeran dauden eraikinetan.
Kontserbazio-egoerarengatik eta bizigarritasun baldintzengatik eraikina finkatzea egokia ez dela ebazten den eraikinetan.

b) Aurretik udalerrri berean negozioak abian dituzten ekintzaileei dagokienez:

1. Izen berria izatea.
2. Pertsona ekintzaileak sustatutako aurreko negozioaz bestelako izaera juridikoa izatea.
3. Beste leku batean kokatzea.
4. Gutxienez lanaldi osoko edo partzialeko lanpostu bat sortzea.
5. Aurretiazko negozioak martxan mantentzea.
6. Artikulu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

Salbuespen gisa, egungo negozioa itxiz enpresa-jarduera berri bat garatzen duten pertsona ekintzaileen proiektuak onartuko dira, baldin eta egiaztatuta eta islatuta geratzen bada honako baldintza hauek betetzen dituela:

1. Pertsona ekintzaileak sustatutako aurreko negozioaz bestelako izaera juridikoa izatea.
2. Beste leku batean kokatzea.
3. Gutxienez lanaldi osoko edo partzialeko lanpostu bat sortzea.
4. 8. artikuluan xedatutakoaren arabera eratutako Batzorde Teknikoak egin dezakeen interpretazioari kalterik egin gabe, ekimen berriak osagai berritzaile



nabarmena izango du, eta hori egindako Bideragarritasun Planean islatuko da. Berrikuntzat hartuko da, zentzu zabalean: produktu eta zerbitzuen gama berritzea eta zabaltzea, merkatua, ekoizpen-prozesua, negozio-eredua, antolaketa eta kudeaketa... lehiakortasunaren funtsezko faktore gisa.

5. Artikulu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzea.

Baldintza horiek betetzen ez baditu, lekualdaketa dela ulertuko da.

d) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

1. Jarduera Tolosako Alde Zaharrea kokatutako lokal itxi batetan egotea.
2. Tolosako Alde Zaharreko Birgaitze Plan Bereziak ezarritako araudia betetzea.

e) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Lokala alokairuan hartu bada, kontratuak gutxienez 12 hilabeteko iraupena izatea.

5. artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

Eskatzaile bakoitzari eman dakioken dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, BEZa kontuan izan gabe:

a) Enpresa ekimena garatuko den lokala birgaitzeko: aurrekontuaren % 20, dirulaguntzaren muga 6.000,00 euro izanik.

b) Alokairu gastuetarako: eskatzaile bakoitzari gehienez ere 12 €/m² emango zaizkio, gehienez honako zenbateko hauekin, BEZa kontuan izan gabe:

- Lehen urtean, 450 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 75.
- Bigarren urtean, 300 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 50.
- Hirugarren urtean, 150 €/hilean, gehienez ere hileko alokairu gastuaren % 25.

Edozein kasutan, onuradun bakoitzeko laguntzak guztira, gehienez ere, honako hauek izango dira: lehen urtean, 5.400,00 €, bigarrenean, 3.600,00 € eta hirugarrenean, 1.800,00 €, betiere hiru urte horietan jarduerari eusten bazaio.

Dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarria, alokairu gastuei bakarrik dagokiona izango da (BEZa eta bestelako zerga eta tasen ordainketa eta atxikipenak kanpo utzita). Salbuespen modura, enpresak BEZa kentzen ez badu, dirulaguntzaren oinarria kalkulatzeko hori ere kontuan hartuko da.

d) Erosketa gastuetarako: lokala erosiz gero, metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko prezioa 1.000 €/ m² izango da. Lokala erosteko dirulaguntza prezioaren %10ekoa izango da, zergak alde batera utzita, eta gehienez 10.800 eurokoa.



Nolanahi ere, onuradun bakoitzeko emandako laguntzaren zenbateko osoa honela banatuko da: %50 lehen urtean, %30 bigarren urtean eta %20 hirugarren eta azken urtean.

Alokairu edo erosketaren kontratua agertzen den egunetik aurrera ordainduko da dirulaguntza.

Laguntzaren eskatzaileak bere gain hartzen badu bi establezimendu alokairuan edo erosketan dituen negozio bat, bigarren establezimenduaren laguntza % 50ekoa izango da, eta guztira bigarren establezimendu horrengatik 5.400,00 € jaso ahal izango ditu laguntza jasotzen duen hiru urteetan.

Kasu horretan, establezimendu bakoitzeko laguntzaren gehieneko muga banaka kalkulatu da, aurrez ezarritako baldintzetan.

6. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifikoak (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Gizarte Segurantzako ziurtagiriaren kopia eta azken hilabeteko autonomoen kuotaren ordainagiria.
3. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
4. Ahaldunen kasuan, ordezkariaren agiria.
5. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.
6. "Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa" izeneko udal inprimakia, jardueraren proiektuarekin batera eta inprimakian azaltzen diren beste agiriekin batera (aurretik Hirigintzako Sailean aurkeztu ez bada).
7. Negozio/bideragarritasun plana, Tolosaldea Garatzeneko Autoenplegu eta Ekintzaitza Sailak oniritzia emanda, aurrekontu edo jardueraren garatzean sortzen diren gastuen zerrenda jasoz.
Interesdunak ez du zertan bideragarritasun azterketa Tolosaldea Garatzen garapen agentziarekin egin, baina azken horrek dokumentua ontzat eman beharko du 8. artikuluan jasotzen den batzorde teknikora eraman aurretik. Halaber, plan horretan txertatu beharko dira 11. artikuluan dirulaguntza emateko irizpideen azalpena.
8. Udalaren web orrian eskuragarri dagoen balioespen-irizpideen ziurtagiria.
 1. Adierazitako alderdiak fakturekin eta froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuekin edo merkataritzako trafiko juridikoan eraginkortasun administratiboa dutenekin frogatu beharko dira, eta horiei egindako ordainketen egiaztapenak gehituko zaizkie.



2. Halaber, kasu bakoitzean, "Baloratzeko irizpideak" eranskinean adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.

a) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada (betiere aurretiaz Hirigintza Sailean aurkeztu ez bada):

1. "Jarduera ezartzeko obren baimen eskaera" izeneko udal inprimakia.
2. Obra eta jarduera proiektua.
3. Aurrekontua.

b) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

1. Bi aldeek sinatutako alokairu-kontratua.

d) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada:

1. Bi alderdiek sinatutako eskuratze-eskriturak.
2. Banku-transferentziaren egiaztagiria, eskuratze-prezioa osorik edo zati batean ordaindu dela egiaztatzen duena.

7. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura eta hautaketa-irizpideak

Eskabidea egiteko interesdunak eranskin honen 6. artikuluan adierazitako agiriak aurkeztu beharko ditu.

Kasu guztietan, Tolosako Udalak eskatu ahal izango die eskatzaileei aurkeztutako eskaera egoki ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezko jotzen duen dokumentu edota informazio gehigarri guztia. Era berean, proiektua hobeto ulertzeko elkarrizketa edo aurkezpen bat egiteko ere eskatu ahal izango du.

Eskaeren baloraziorako, Batzorde Tekniko bat sortuko da: batzorde hori osatuko dute Tolosako Udaleko teknikari batek (Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Turismoa, Merkataritza, eta Azoka Sailekoa) eta Tolosaldea Garatzen Eskualdeko Garapen Agentziako Ekintzailtza arloko teknikari batek. Aldi berean, batzordeak berak hala erabakitzen duen kasuetan, adituek batzordean parte hartu ahal izango dute. Adituek aholkulari gisa hartuko dute parte, eta ez dute boto eskubiderik izango.

Era berean, Batzorde hau eratzeko unean, kideen kopurua lautik gorakoa bada, ahaleginak egingo dira sexu bakoitzeko pertsonen gutxienez % 40ko ordezkartza izango dutela bermatzeko.

- Dirulaguntza emateko irizpideak:

Dirulaguntza jaso ahal izateko, proiektuek 50 puntu baino gehiago lortu beharko dituzte:



BALORAZIO IRIZPIDEAK	PUNTUAK
Tolosaldea Garatzenek ontzat emandako bideragarritasun azterketa:	30
Izaera estrategikoa: <ul style="list-style-type: none">• Udalerriko sektore edo ingurune zehatz batean izaera estrategikoa dutenak honako arlo hauekin lotutakoak izango dira: zahartze aktiboa eta zilarrezko ekonomia, lehen sektorea, turismoa, ekonomia zirkularra, tokiko gastronomia eta kultura.• Beste sektore edo jarduera batzuk baloratu ahal izango dira, baldin eta indarreko Hiri-ekonomiako Plan Estrategikoarekin zerikusia badute.	10
Eskainitako produktuen eta zerbitzuen ingurumen ikuspegia: <ul style="list-style-type: none">• Ekonomia zirkularreko jarduera/produktu jasagarrien salmenta.• Energiaren kudeaketa eraginkorra bermatzen duten neurriak.• Hondakinak gutxitu edo era eraginkorrean kudeatzeko sistemak.<ul style="list-style-type: none">○ Puntu bat hartutako neurri bakoitzeko.	5
Talde sustatzaileko kide batek gutxienez 31 urte ditu eskaera egiten den egunean:	5
Sustatzaileen edo bazkideen erdiak gutxienez, emakumeak dira	5
Enplegua sortzea: <ul style="list-style-type: none">• Puntu bat lanaldi osorako kontratatutako pertsona bakoitzeko. Lanaldi partziala bada, proportzionalki zenbatuko da.	5
Proiektuak euskararen erabileraren faktorea integratuta izatea: <ul style="list-style-type: none">• Erakundearen irudia (errotulua eta izena euskara hutsez izatea): 5 puntu.• Bezeroarekiko harremanak ahoz eta idatziz euskaraz bermatzea (zerbitzua eskainiko duten pertsonen hizkuntza gaitasuna): 5 puntu.<ul style="list-style-type: none">▪ Pertsona kopuruaren arabera, proportzionalki kalkulatu da.▪ Horretarako, euskarazko titulua (B2 maila) aurkeztu beharko da edo, hura izan ezean, Euskara Sailak egindako galdeketa gainditu beharko da.	10
Alde Zaharreko kokapena: <ul style="list-style-type: none">• Alde Zahartzat hartuko da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean zehaztutakoa.	15
Kanpoaldean (Alde Zaharra ez dena):	5



8. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura bideratu, baloratu eta ebazteko eskumena duten organoak

- Instrukzioa:

Dirulaguntza horiek emateko prozeduraren instrukzioa Tolosako Udaleko Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azoka Sailari dagokio.

- Balorazioa:

Aipatutako Batzorde Teknikoari dagokio eskabideak baloratzea, dagokion txosten teknikoaren bitartez. Txostenean jasotako balorazio eta emakida-proposamena dagokion Batzorde Informatiboari aurkeztuko zaio, bere oniritzia emateko. Ondoren oniritzi hori organo eskudunari helaraziko zaio, hark ebatz dezan.

Eskaera egiten den ekitaldirako udal aurrekontuan kreditu erabilgarririk ez badago, eskatzaileak onuradun izan ahalko dira hurrengo deialdian. Hori udal aurrekontuan erabilgarri dagoen kredituaren eta momentuan dagoen eskari kopuruaren arabera izango da.

Edozein kasutan, Garapen Ekonomikoa, Enplegua, Merkataritza, Turismoa eta Azoka Sailari dagokio horren balorazioa egitea, eta dirulaguntzak atzera-eraginkortasunarekin onartzeko proposamena egitea.

- Ebazpena:

Dirulaguntza emateko prozedura zinegotzi delegatuak ebatziko du, Udalaren administrazio-antolaketa unean-unean indarrean dauden eskumenen eta balizko eskuordetzen arabera.

9. artikulua. Jarduketak egikaritzeko epea

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hasi behar dira, eta ebazpena ematen denetik hurrengo 3 urteetan lagunduko dira diruz.

Salbuespen izango dira atzera eraginkortasunarekin onartutako eskaerak. Hauetan ez da beharrezkoa izango dirulaguntzaren xede diren jarduketak urte naturalaren barruan hastea.

10. artikulua. Dirulaguntza zuritzeko aurkeztu beharreko agiriak eta epea

a) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako bada:

1. Proiektu teknikoa egitea beharrezkoa litzatekeen lanen kasuan dagokion obra bukaerako ziurtagiria, elkargoaren oniritziarekin (bisatuarekin).
2. Gastuen sailkapen zerrenda (GA-GE inprimakia).
3. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.



b) Dirulaguntza alokairu gastuetarako bada:

Seihilekoa igaro ondoren, aurreko seihilekoari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da. Zehazki, honako agiri hauek:

1. Alokairuen fakturak, dagokion banku-ordainagiriarekin batera.
2. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.

d) Dirulaguntza erosketa gastuetarako bada:

Seihilekoa igaro ondoren, aurreko seihilekoari dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da. Zehazki, honako agiri hauek:

1. Zergei dagozkien betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizioz kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
2. Erosketa mailegu bidez egiten den kasuetan: maileguaren kuota ordaindu izanaren ordainagiria ere aurkeztu beharko da.

11. artikulua. Ordainketa prozedura

a) Dirulaguntza birgaitze gastuetarako eskatu bada: ordainketa bi zatitan egingo da: ebazpenarekin batera, dirulaguntzaren % 70a. Gainontzeko % 30a, berriz, zuriketarako agiriak aurkeztu ostean.

b) Alokairu edo erosketa gastuetarako eskatu bada: dirulaguntza sei hilero ordainduko da, 3 urteko epea bete arte, dagokion egiaztagiriak aurkeztu ondoren.



III. ERANSKINA: KALE ESPAZIO ETA LOKAL HUTSAK DINAMIZATZEKO EKINTZAK SUSTATZEKO PROGRAMA – GUNE BIZIAK

1. artikulua. Helburua

GUNE BIZIAK programaren helburua da kale espazio eta lokal hutsak dinamizatzeko ekintzak sustatzeko dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

2. artikulua. Diruz lagunduko diren jarduerak

Lerro honen baitan jarduera hauek izango dira diruz lagungarriak:

- a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko: merkataritza jarduerarik ez duten lokalen jabeek lokalaren erakusleihoa utziko diote Tolosako Udalari, Udalak udalerriko merkatariei utz diezaien. Azken horiek beren produktuen lagin bat erakusteko modua izango dute.
- b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: merkataritzako jarduerarik ez duten lokal eta espazioetan (atzeko aldeak, hormak...) merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak garatuko dira, grafitiak, biniloak, margolanak edo antzekoak.

Nolanahi ere, GUNE BIZIAK programa bultzatzeko ahalmena Tolosako Udalak izango du une oro, eta une bakoitzean dauden beharren eta baliabideen arabera garatuko du ahalmen hori.

3. artikulua. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisikoak, norberaren konturako langileak edo autonomoak, eta pertsona juridikoak, euren izaera juridikoa edozein dela ere, betiere oinarrietan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte. Onuradunen bi profil ezartzen dira:

1. Erakusleihoa erabiltzeko uzten duten merkataritza-lokal hutsen jabeak.
2. Lokala utzita jasotzen duten Tolosako merkatarriak.

4. artikulua. Onuradunek bete behar dituzten baldintzak

Onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Tolosako Udalak martxan dituen birgaitze proiektuei atxikitako kaleetan lokal huts baten jabe izatea, edo Tolosan merkataritza jarduera baten jabe izatea.
2. Erakusleihoa edo lokalaren kanpoaldea uzteko epea gutxienez 6 hilabetekoa izango da akordioa sinatzen den unetik.

Nolanahi ere, jabeak eskubidea izango du lagapen-kontratua 6 hilabete horiek baino lehenago bertan behera uzteko, lokala saldu behar badu edo merkataritza-jarduera bat ezartzeko alokairuan jarri behar badu.

5. Artikulua. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa

- a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko.



- Erakusleihoa Tolosako Udalari uzten dioten jabeek 200,00 €-ko dirulaguntza jasoko dute.
- Tolosaren Udalaren bitartez lokala utzita jasotzen duten merkatariek erakusleihoa egokitzeko kostuaren % 100eko dirulaguntza jasoko dute:
 - 2 metro arteko erakusleihoen kasuan (kristalaren zabalera hartuko da erreferentziatzat): 600,00 € gehienez ere.
 - 2 metrotik aurrera: 800,00 € gehienez ere.

Azken kasu horretan, diruz lagunduko dira kontzeptu hauek: erakusleihoa egokitzeko obrak, instalazio elektrikoa egokitzeko lanak, su-itzalguen kostua, aseguru poliza...

Fatxadako errotulu nagusia aldatzen bada, gutxienez euskaraz egotea bermatu behar da. Era berean, soilik euskaraz egonez gero, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Sailaren dirulaguntza jaso ahal izango dute.

b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: Tolosako Udalak merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak garatuko ditu (grafitiak, biniloak, margolanak...) eta horiek gauzatzeko kostu osoa bere gain hartuko du.

6. artikulua. Ordaintzeko modua

Erakusleihoa Tolosako Udalari utzi dion jabearen kasuan, ordainketa bakarria egingo da, behin baldintzak betetzen dituela egiaztatuta eta bi aldeek arteko akordioa sinatu ostean.

Erakusleihoa bat hartu nahi duen merkataria kasuan ordainketa bakarria egingo da, lokala egokitzeko lanak burutu, zuriak aurkeztu eta udal teknikariak aldeko txostena egin ostean.

7. artikulua. Eskabidea egiteko aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskaera egiteko, interesdunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

1. Eskabide-orri espezifikoak (Udalaren webgunean eskura daiteke).
2. Zergei dagozkien betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin eguneratuta daudelako ziurtagiriak, agiri horiek Udalak ofizios kontsultatzearen aurka agertu bada eskatzailea.
3. Ahaldunen kasuan, ordezkariak agiria.
4. Ondasun erkidegoen, sozietate zibilen eta pertsona juridikoen kasuan, erakundearen eraketa eta hori arautzeko estatutuak jasotzen dituen eskrituraren edo agirien fotokopia, Udaletxean jasota ez badaude.

- Lokalaren erabilera Udalari lagatzeko interesa duten jabeek:

1. Lokalaren identifikazioa eta egoera jasotzen duen memoria.

- Erakusleihoa erabiltzeko interesa duten merkatariek:

1. Lokalaren identifikazioa eta erakusleihori eman nahi zaion erabilera jasotzen duen proiektua.



2. Obra jakinarazpena edo obra txikia egiteko eskaera (egin beharreko obren arabera) eta aurrekontua.
3. Kontratututako aseguru-polizaren ziurtagiria eta ordainagiria, istripurik izanez gero, lokalaren balioa eta erakusleahoaren instalazioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.

8. artikulua. Lokalaren lagapenerako prozedura

- a) Lokal baten erakusleihoa lagatzea beste saltoki baten erakusleiho izateko: behin Tolosako Udalak bi eskaerak jaso dituenean, bi akordio sinatuko ditu:
Bata, lokal hutsaren jabearekin.
Bestea, lokal hutsaren erakusleihoa erabiliko duen merkatariarekin.
Hau da, lokal hutsaren jabearekin akordioa sinatu ondoren, lokal hori Tolosako merkatarari bati utziko dio, beste akordio berri bat sinatuaz, azken horrek lokal horren erakusleihoa erabili dezan.
- b) Merkataritzako paisaia hobetzera bideratutako neurriak: kasu honetan, Udalak lokal hutsaren jabearekin akordioa sinatuko du.

9. artikulua. Emandako dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa

Behin pertsona eskatzaileak lokala egokitzeko lanak burutu dituenean honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Memoria dagokien argazkiekin.
2. Gastuen sailkapen zerrenda (GAL-GE inprimakia).
3. Fakturak eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuak; horiei egindako ordainketen egiaztagiriak gehituko zaizkie.

10. artikulua. Aldeen betebeharrak

- Jabearen betebeharrak:

- Udalaren bitartez erakusleihoa utzita jasotzen duen merkataritari behar adina aldiz utziko dio sartzan erakusleihoaren mantentze-lanak egiteko, berritzeko edo bertan dauden salgaiak kentzeko.
- Lokala alokatzeko edo saltzeko iragarkien kartelak Udalak jarriko ditu jabeen eskura, eta haiek ezingo dute eredu horiez aparteko kartelik eta iragarkirik jarri.

- Udalaren bitartez erakusleihoa utzita jaso duen merkatariairen betebeharrak:

- Erakusleihoa egokitu beharko du.
- Beharrezko su-itxalgailuak jarri beharko ditu, Udaleko zerbitzu teknikoek ezarritako irizpideen arabera.
- Erakusleihoaren kontsumo elektrikoaren gastua ordaindu beharko du. Erakusleihoaren kontsumoa neurtzeko kontagailurik ez badago, aldeek adostasunez erabakitakoa bete beharko du.



- Ezingo du inolako jarduera ekonomikorik egin erakusleihoa dagoen lokalean; erakusleihoa bera atondu eta egokitu besterik ez du egingo.
- Erakusleihoan erakutsitako laginaren kalitatea zaindu beharko du.
- Aseguru-poliza bat kontratatu beharko du, istripurik izanez gero, lokalaren balioa eta erakusleihorearen instalazioaren ondorioz sor daitekeen erantzukizun zibila bermatzeko.
- Kontratua amaitzean, baldintza berberetan utzi beharko du lokala. Horretarako, lokala entregatu aurretik, udal zerbitzu teknikoek akta jasoko dute, lokala zer egoeratan dagoen zehazteko, laguntza ematen den datatik hasita.
- Erakusleihoa gutxienez 6 hilabetez mantendu beharko da, eta horrela ez den kasuetan Udalari jakinarazi beharko zaio.

- Udalaren betebeharrak:

- Bi aldeen arteko akordioa amaitutzat emandakoan, Udalak egoera onean utziko dio berriz lokal hutsa haren jabeari, eta kalterik sortu bada, Udalak konpondu beharko du. Horretarako, lokala jaso aurretik, udal zerbitzu teknikoek akta jasoko dute, lokala zer egoeratan dagoen zehazteko.

- Jarduketa artistikoa egiten duen enpresaren betebeharrak:

- Idatzizko informazioa (kartelak, oharra...) euskaraz edo ele bitan egin behar da, eta, azken kasu horretan, euskarari lehentasuna emanda, Tolosako Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko Udal Ordenantzak xedatzen duen bezala.



**IV. ERANSKINA: TOLOSAN ENPRESARITZA EKIMEN BAT ABIARAZTEA – EGIN PROGRAMAN ONARTZEN DIREN JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN (JEZ) TALDE ETA EPIGRAFEAK.
LEHEN SEKZIOA. ENPRESA JARDUERAK:**

MERKATARITZA:

491 Bitxigintza eta imitaziozko bitxigintza.

641 Fruituen, barazkien, ortuarien eta tuberkuluen txikizkako merkataritza.

642 Honako txikizkako merkataritza: haragia eta hondakinak, haragi-gai eta haragiki landuak, arrautzak, hegaztiak, abeletxeko untxiak, ehizakiak, eta horien ekoizkin eratorriak.

643 Arrainen eta arrantzako eta akuikulturako bestelako ekoizkinen eta barraskiloen txikizkako merkataritza.

644 Ogi, gozoki, konfite eta antzekoen, eta esne eta esnekien txikizkako merkataritza.

645 Mota guztietako ardoen eta edarien txikizkako merkataritza.

646 Tabako-laboreen eta erretzaileentzako gauzen txikizkako merkataritza.

647.1 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, saltzailearen establezimenduetan.

647.2 Mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan, saltzeko gelak 120 metro koadro baino gutxiagoko eremua duenean.

647.3 Supermerkatuetan egiten den mota guztietako jangaien eta edarien txikizkako merkataritza, autozerbitzuko erregimenean nahiz erregimen mistoan; saltzeko gelak 120 eta 399 metro koadro bitarte dituen deritze supermerkatu.

651 Ehungintza-gaien, jantzigintza-gaien, zapaten, larruen eta larrugintza-gaien txikizkako merkataritza.

652.2 Drogeriako, lurringintzako eta kosmetikako produktuen, garbiketako gaien, pinturen, bernizen, disolbatzaileen, paperen eta dekoraziorako beste ekoizkin batzuen eta kimikako ekoizkinen txikizkako merkataritza.

652.3 Lurringintzako eta kosmetikako ekoizkinen eta norbere higienarako eta garbiketarako gaien txikizkako merkataritza.

652.4 Belar-dendetako landareen eta belarren txikizkako merkataritza.

653 Etxeko ekipamenduen eta eraikuntzarako gaien txikizkako merkataritza.

654.2 Lurreko ibilgailuentzako osagarrien eta ordeko piezen txikizkako merkataritza.

654.5 Mota guztietako makineriaren txikizkako merkataritza (etxekeko aparatuak, bulegokoak, medikuenak, ortopedikoak, optikoak eta argazkigintzakoak izan ezik).

654.6 Mota guztietako ibilgailuetarako gurrpil-azalen, banden edo aire-ganberen txikizkako merkataritza.

656 Altzarien, jantzien, etxean erabiltzeko jantzi eta tresna arrunten eta antzeko ondasun erabilien txikizkako merkataritza.

657 Musika-tresnen eta haien osagarrien txikizkako merkataritza.

659 Bestelako txikizkako merkataritza.



OSTALARITZA ETA TURISMOA

671 Jatetxeetako zerbitzuak.

672 Kafetegietako zerbitzuak.

673 Janaridun edo janari gabeko kafetegi eta tabernetan.

676 Txokolategietako, izozki-dendako eta hortxategietako zerbitzuak.

68 Ostatu zerbitzuak.

755 Bidaia agentziak.

HIRIKO MERKATARITZA-JARDUERAREKIN LOTUTAKO BESTE ZERBITZU BATZUK

691.1 Etxeko tresna elektrikoen konponketa.

691.9 Beste kontsumo-ondasun batzuk konpontzea, b.i.s.g.

83 Finantza- eta aseguru-laguntzaileak. Higiezin jarduerak (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira).

84 Enpresei emandako zerbitzuak (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira).

943 Estomatologia eta odontologiako kontsultak eta klinikak.

944 Naturopatia, akupuntura eta beste zerbitzu parasanitario batzuk.

945 Albaitarien kontsultak eta klinikak.

971 Garbitegiak, tinategiak eta antzeko zerbitzuak.

972 Ile-apaindegiak eta gorputz apaindegiak.

973.1 Fotografia-zerbitzuak.

973.3 Makina-fotokopiagailuen bitartez agiriak kopiatzeko zerbitzuak.

975 Enmarkazio zerbitzuak.

979.9 Beste zerbitzu pertsonal batzuk.

BIGARREN SEKZIOA. JARDUERA PROFESIONALAK (zerbitzuak establezimendu batean ematen badira)

7. atala: finantza, lege, aseguru eta alokairuetako jarduerekin lotutako profesionalak.

825 Lurreko, uretako, aeronautikako eta abarretako ibilgailuak gidatzeko irakasleak.

83 Osasun-arloko profesionalak.

826 Irakaskuntza ezberdinen irakasleak, esate batera, hezkuntza fisikoa eta kirolak, hizkuntza, mekanografia, azterketa eta oposizioen prestakuntza eta antzekoak.

84 Enpresentzako zerbitzuak.

88 Hainbat profesional.

836 Osasun teknikari laguntzaileak eta fisioterapeutak.

839 Masajistak, bromatologoak, dietistak eta erizaintzako laguntzaileak.

841 Naturopatia eta akupuntura zerbitzuak eta beste zerbitzu parasanitario batzuk.

861 Margolariak, eskultoreak, zeramikariak, artisauak.

887 Makillatzaileak eta estetizistak.

HIRUGARRENA.- Behin betiko ordenantzaren testu osoa eta erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko web orrian eta Iragarki taulan, eta Gardentasunaren atarian argitaratzea.



Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez behin betiko onarpena eman dio Tolosako hiri-ekonomia indarbertzeko dirulaguntza programako oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari.

18.ONARTZEA EUSKO EKI SL ENPRESARI TOLOSAKO UDAL LIBURUTEGIAN EMANDAKO ZERBITZUENGATIK AURKEZTUTAKO FAKTURAK ORDAINKETA.

Herritarrak batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

AURREKARIAK

1.- 2022ko otsailaren 1ean, urtarrila-otsaila epealdian 39 lan jardunaldirako udal liburutegirako laguntza zerbitzua kontratatzeke espedientea izapidetu zen kontratu txiki baten bidez. Kontratua Eusko Eki S.L-ri esleitu zitzaion, 10.740,59 eurotan (ESKA-000014).

2.- 2022ko martxoaren 22an, martxoa-apirila epealdian 26 lan jardunaldirako udal liburutegirako laguntza zerbitzua kontratatzeke espedientea izapidetu zen kontratu txiki baten bidez. Kontratua Eusko Eki S.L-ri esleitu zitzaion, 7.158,57 eurotan (ESKA-000336).

3.- 2022ko uztailaren 1ean, apirila-ekaina epealdian 56 lan jardunaldirako udal liburutegiko laguntza zerbitzua kontratatzeke espedientea izapidetu zen kontratu txiki baten bidez, lizitazio bidezko kontratazioa gauzatu bitartean. Kontratua Eusko Eki S.L-ri esleitzea proposatzen zen, 12.745,79 eurotan (ESKA-001293).

Kontuhartzailetatik espedientea itzuli egin zitzaion eskaera egin zuen departamentuari



uztailaren 8an, adieraziz, hirugarren horrekin proposatzen zen kontratuaren zenbatekoarekin gaintzen zela mota honetako kontratuentzat 9/2017 Legearen 118.1 artikulua ezarritako muga, eta beraz, ezin zela zerbitzua kontratatu kontratu txiki baten bidez.

4.- 2022ko uztailaren 12an, uztailean udal liburutegiko laguntza zerbitzua kontratatzeko espedientea izapidetu zen kontratu txiki baten bidez, lizitazio bidezko kontratazioa gauzatu bitartean. Kontratua Eusko Eki S.L-ri esleitzea proposatzen zen, 5.508,00 eurotan (ESKA-001365).

Kontuhartzailetatik espediente hau ere itzuli egin zitzaion eskaera egin zuen departamentuari uztailaren 15ean, arrazoi berdinetatik.

5.- 2022ko irailaren 12an, abuztuan udal liburutegiko laguntza zerbitzua kontratatzeko espedientea izapidetu zen kontratu txiki baten bidez, lizitazio bidezko kontratazioa gauzatu bitartean. Kontratua Eusko Eki S.L-ri esleitzea proposatzen zen, 6.058,80 eurotan (ESKA-001557).

Kontuhartzailetatik espediente hau ere itzuli egin zaio eskaera egin zuen departamentuari irailaren 23an, arrazoi berdinetatik.

6.- 2022ko irailaren 12an, irailean udal liburutegiko laguntza zerbitzua kontratatzeko espedientea izapidetu zen kontratu txiki baten bidez, lizitazio bidezko kontratazioa gauzatu bitartean. Kontratua Eusko Eki S.L-ri esleitzea proposatzen zen, 5.232,60 eurotan (ESKA-001578).

Kontuhartzailetatik espediente hau ere itzuli egin zaio eskaera egin zuen departamentuari irailaren 23an, arrazoi berdinetatik.

7.- Udal liburutegiko laguntza zerbitzuaren lizitazio-espedientearen izapidetzearen atzerapenaren ondorioz, departamentu kudeatzaileak zerbitzua kontraturik gabe ematen jarraitzea erabaki du, eta hilero aurkeztu dira egindako lanei dagozkien fakturak.

8.- 2022ko urriaren 14ean gertatutakoari buruzko azalpenak eman nituen eta Eusko Ekiri egindako lanagatik fakturak ordaintzea proposatzen zuen txostena eman nuen, eskatutako lanak behar bezala eta prezio egokian eman zirelako.



Honakoa da gastuaren deskribapen zehatza:

Espedientea	Data	Zka.	Zenbatekoa	Kontzeptua	Partida
2022-FAKT-002731-00	2022/06/02	33	6.058,80	Liburutegian maiatzean laguntzaileen zerbitzuagatik	0800.227.04.332.10
2022-FAKT-003018-00	2022/06/20	37	3.580,20	Liburutegian apirilaren 8tik laguntzaileen zerbitzuagatik	0800.227.04.332.10
2022-FAKT-003203-00	2022/07/03	38	5.783,40	Liburutegian ekainean laguntzaileen zerbitzuagatik	0800.227.04.332.10
2022-FAKT-003888-00	2022/08/02	67	4.957,20	Liburutegian uztailean laguntzaileen zerbitzuagatik	0800.227.04.332.10
2022-FAKT-004237-00	2022/09/07	54	6.058,80	Liburutegian abuztuan laguntzaileen zerbitzuagatik	0800.227.04.332.10
2022-FAKT-004460-00.	2022/10/2	62	5.232,60	Liburutegian irailean laguntzaileen zerbitzuagatik	0800.227.04.332.10
			31.671,00		

ONARRI JURIDIKOAK

32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena. 28 artikulua.

Honela dio 28. artikulua:

“28. artikulua. Eginkizun kontu-hartzailea ez betetzea.

1.Foru dekretu honetan jasotakoaren arabera eginkizun kontu-hartzailea derrigorrezkoa izanik bete ez denean, ezin izango da ez obligazioa onartu, ez ordainketa izapidetu eta ez jarduketa horien aldeko kontu- hartzea egin, harik eta ez-betetzea artikulua honetan jasotakoari jarraituz ezagutu eta konpondu arte.

2.Baldin eta espediente bat ezagutzean organo kontu-hartzaileak eginkizun kontu-hartzailea bete ez dela erreparatzen badio, horren berri emango dio espedientea hasi duen agintariari eta, aldi berean, bere iritzia emango du proposamenaz, txosten hori jarduketei erantsita, betiere toki entitateko lehendakariak prozedurarekin eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketekin jarraitzea erabaki ahal izateko.

Baldin eta eginkizun kontu-hartzailea ez bada betetzen osoko bilkuraren eskumeneko obligazio edo gastuei dagokienez, toki entitateko lehendakariak osoko bilkuraren erabakiaren menpe jarriko du prozeduraren eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketekin jarraitzea.

Txosten horrek ez du izango eginkizun kontu-hartzailearen ariketaren izaerarik, salbu eta eragozpena azaldu bada ordainketa aginduen jatorri diren egintzak fiskalizatu ez



direnean. Txostena foru dekretu honetako 15. artikularen 6. apartatuan aipatutako zerrendan sartuko da, eta gutxienez alderdi hauek:

a)Gastua xehetasunez deskribatzea. Hura identifikatzeko behar diren datu guztiak sartuko dira, eta gutxienez honako hauek: organo kudeatzailea, gastuaren xedea, zenbatekoa, izaera juridikoa, noiz egin den, aurrekontu kontzeptua eta zer ekitaldi ekonomikotara egotziko den.

b)Adieraztea zer kasutan ez den araudia bete, informatzen duen organo kontu-hartzailearen iritziz, derrigorrezko aurretiazko fiskalizazio edo kontu-hartzea egin gabe egintza eman zenean, urratutako legezko xedapenak espresuki aipatuta.

c)Egiaztatzea prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela. Horretarako, kontuan hartuko dira organo kudeatzaileak aurkeztutako balorazio eta frogagiriak, betiere organo horrek beharrezkoak diren aholku edo txosten teknikoak eskuratu behar izanik.

d)Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela gastua ordaintzeko.

e)Begiratzea aukera ote dagoen eta komeni ote den ordenamendua urratuta emandako egintzak berrikustea. Hori guztia egitea organo kontu-hartzaileari dagokio, betiere aintzat hartuta prestazioak egin diren, haiek zer izaera duten eta nola baloratzen diren, bai eta legea bete den ere. Horretarako, kontuan hartuko da, egintzaren berrikuspenaren emaitza gauzatzeko, kalte-galeren ordainketaren bidea erabiliko dela, betiere Administrazioa bidegabe aberastearen edo bere ardurapeko obligazioa ez betetzearen ondorioz berari dagokion ondare erantzunaren ondorioz. Hortaz, ekonomia prozesaleko arrazoiak direla eta, berrikuspen hori egiteko eskatzea bidezkoa litzateke bakarrik uste denean kalte-ordain horien zenbatekoa txikiagoa izango dela proposatzen dena baino.

3. Biztanle kopuru handiko udalerrietan, obligazio eta gastuen inguruan esleituta dagoen eskumenaren arabera, osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak erabakiko du prozedurarekin eta bidezkoak diren gainerako jarduketekin jarraitu edo ez.

Ebazteko eskumena tokiko gobernu batzordearena denean, espedientea tokiko gobernu batzordeari bidaltzeko ardura izango da espedientearen izapideaz arduratzen den organoari dagokion edo organismo autonomoa edo, hala badagokio, partzuergoa adskribatuta duen arloko departamentu edo zinegotzigoaren organo titularrena, betiere eskumen hori eskuordetu ahal izan gabe.

4. Osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak aldeko erabakia hartzen badute ere, egon daitezkeen erantzukizunak eskatu ahal izango dira.”

Tolosako Udaleko Herritarrak Batzordeak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:



Aldeko botoak: Xarles Iturbe, Begoña Tolosa, Izarne Iglesias, Jose Mari Villanueva, Aitzol Gartzia, Ander Figuerido eta Xabier Martinez.

Beraz, aho batez, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENENGOA.- Ordenamendu juridikoan arau-hausteak antzeman direnez, egintza deuseztat jotzen dutenak, bidezkoa da, **ekonomia prozesaleko arrazoiak direla eta**, prozedurarekin jarraitzea eta udala bidegabe aberastearen kalte-ordaina fakturen zenbateko osoan finkatzea, espedientean jasotzen den prestazioen balorazioari buruzko informazioaren arabera, eta Eusko Eki SL-ren alde 31.671,00 euroko obligazioa onartzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez onartu du Eusko Eki SL enpresari tolosako Udal libutegian emandako zerbitzuengatik aurkeztutako fakturak ordaintzea

19.TOLOSAKO HAPOKO «11 SAN ESTEBAN» HIRIGINTZA ESPARRUKO ALDAKETA PUNTUALARI BURUZKO ESPEDIENTEA HASTEAN ETA HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROGRAMA ONARTZEA

Lurraldeko batzorde informatiboaren 2022ko urriaren 19ko irizpena

I.- AURREKARIAK:

Tolosako Udalbatzak, 2009ko martxoaren 3an egindako ohiko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez onartu zen behin-betikoz Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Testu Bategina, 2009ko urtarrilekoa.

Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, 11. SAN ESTEBAN hirigintza esparruko arau partikularrean honakoa jasotzen du, bestek beste:



“C. Garapen-plangintza lantzeko eta onartzeko epeak.

11.1 San Esteban. Bizitegi-garapen berria» (azpi)esparruan sustatu beharreko Plan Berezia ere Plan Orokor honen indarraldiko lehen laurtekoan landu eta bideratuko da.”

2010. urtean San Esteban auzoko bizilagunekin parte-hartze prozesu bat garatu zen auzoan beharrezkoak ziren ekipamendu eta zerbitzuak zehaztu eta lehenesteko.

Hiru urte geroago, beste askoren artean, higiezinen merkatuari eta garapen berrien bideragarritasun ekonomikoari, eta aurretik onartutako hirigintza-plan ezberdinei bortizki eragin zien krisi larriaren eraginez, erabaki zen berriro ere San Esteban auzoko bizilagunekin parte-hartze prozesu berri bat egitea hirigintza aurreikuspenak behar eta garai berrietara egokitzeko.

Parte-hartze prozesu hura 2013ko maiatza eta ekaina bitarteko 4 saiotan burutu zen. Bertatik hainbat ondorio atera ziren eta Tolosako Udalak, esparruaren etorkizuneko garapenean, aintzakotzat hartuko zituela esan zuen.

2014ko ekainaren 2an, sinatu zen Santiago Peñalba Garmendia, Manu Arruabarrena Florez eta Mikel Iriondo Iturrioz jaunekin Tolosako hiri ordenazioko Plan Orokorraren berrikuspen partziala egiteko kontratua. Bertan, besteak beste, 11-San Esteban eremua berrikustea aurreikusten zen beste eremu batzuekin batera. Baina 2018ko irailaren 24an, talde tekniko honek idatzi bat aurkeztu zuen udal erregistroan ondorengoa eskatzen: “*La resolución del trabajo de Revisión Parcial del Plan General de Tolosa (...)*” Eta kontratua modu adostuan etetea erabaki zen.

Beraz, 2009ko martxoan Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zenetik, Udala ez da 11.1 San Esteban azpiesparruko antolamendu xehakaturia onartzera iritsi. Eta auzoaren garapenari buruz antolatu diren parte-hartze prozesuetan HAPOn jasotako zehaztapenak errotik birplanteatzeko beharra ikusi zen. Ondorioz, Udalak Plan Orokorreko 11-San Esteban eremuko aldaketa puntualaren Diagnostikoa eta Aurrerakinaren idazketarako zerbitzu kontratuaren lizitazioa martxan jarri zuen,



esparru horretara bakarrik mugatuta.

Hala, 2019ko ekainaren 28an onartutako 2019/1109 alkatetzaren dekretu bidez SABAI ARKITEKTOAK, S.L., enpresari esleitu zizaion Tolosako hiri antolamenduko Plan Orokorreko 11-San Esteban eremuko aldaketa puntuala egiteko oinarri izan litezkeen diagnostiko, aurrerakin eta honen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedurari dagozkion dokumentuak (ingurumen-eraginari buruzko ikerketa barne) idazteko zerbitzu kontratua.

2019ko Uztailaren 8an Sabai Arkitektoak, S.L., enpresa eta Udalaren artean formalizatu zen aipatu zerbitzu kontratua. Kontratua hiru fasetan egikaritzea aurreikusitua zen.

2020ko maiatzaren 19an aurkeztu zen udalean Informazio eta Diagnostiko dokumentua, kontratuaren lehen faseari dagokion dokumentua.

Baina kontratua formalizatu eta gero, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua sartu zen indarrean eta bere 3. artikulua 1. atalean ezartzen du Planaren berrikuspena formulatzeko erabakiarekin batera parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko dela. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea izan dezaten.

Herritarrek parte hartzeko programa hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko da labur-labur, informazioaren teknologia berrietan zabalduko da eta, gutxienez, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu:

“

- a) *Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.*
- b) *Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.*
- c) *Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.”*



Ondorioz, indarreko arautegia kontuan hartuta, HAPO aldatzeko espediente bat izapidetzeko jarraitu beharreko prozedurari buruzko txosten teknikoa idatzi zen 2022ko urriaren 4an.

2022ko urriaren 13an Udal Plangintzako Aholku Batzordearen Osoko Bilkura egin da.

II.- AZTERKETA TEKNIKOA:

2022ko urriaren 4an idatzitako txosten teknikoan honakoan jasotzen zen:

“II.1.- ALDAKETA PUNTUALAREN EREMUA ETA GAUR EGUNGO EGOERAREN DESKRIBAPENA

“11. San Esteban” hirigintza-esparrua Renferen trenbide-sarearen ezker aldean dago, San Esteban izeneko auzoan. Ipar-mendebaldetik landa-eremua du mugakide.





Renferen trenbide sareak banatzen du Tolosako gunearen gainerakotik, eta sare horrek galarazten dio auzoari lotura edo konexio onak izatea, eta, horregatik, zabalgunearen gainerakotik aparte gelditzen da esparru hau.

Esan liteke San Esteban auzoa, gaur egun, auzo degradatu bat dela, zati handi bat behintzat, bai: auzo honetan ez dira exekutatu Plan Orokorra baino lehenagoko planeamenduen aurreikuspenak eta oso izaera desberdinetako errealitateak daude bertan:

- Erabilera industrialeko eraikinak, horietako asko utzita; beste batzuk, berriz, jardueraren bat dutenak, tartean Udalarenak, besteak beste, udal brigadarena, Unipapel izeneko eraikinean.

- Zuberoa etxebizitza-multzoa, hasiera batean finkatuta edo kontsolidatuta gelditu behar duena, baina birgaitze-jarduketan beharra duena.

- Zuberoa multzoaren ondoan dagoen etxebizitza-multzoa.

- Feriala, ekipamenduko eraikina, birgaitzeko beharra duena.

- Bonberenea eraikina.

- Lur gaineko aparkaleku publikorako lurzorua.

II.2.- HAPO ALDATZEKO ESPEDIENTEA BULTZATZEKO JUSTIFIKAZIOARI DAGOKIONEZ:

Udal plangintzaren aldaketa zehatz bat bultzatzeak, interes publikoa aitortu beharra dakar, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 4. artikuluan ezartzen den bezala.

Aurrekarietan azaldu den moduan, 2009ko martxoan Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra onartu zenetik, hainbat saiakera egin badira ere, Udala ez da 11.1 San Esteban azpiesparruko antolamendu xehakaturia onartzera iritsi. Eta auzoaren garapenari buruz antolatu ziren parte-hartze prozesuetan HAPOn jasotako zehaztapenak errotik birplanteatzeko beharra ikusi zen.



Bestalde, azken urteetan indarrean sartu diren araudi ezberdinak ere kontuan hartu beharra dago: batetik, Hirigintzako Estandarrei buruzko 123/2012 Dekretua; bestetik, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duena; eta baita martxoaren 24ko 46/2020 Dekretua ere. Eta lurralde antolamenduko tresna berriak ere sartu dira indarrean: LAGen aldaketa Egoitza Kuantifikazioari dagokionez (2016), EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak – LAG (2019) eta Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (2020), esaterako.

Hala, besteak beste, 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak tresna berriak proposatzen ditu eraikinen birgaitzea, hiri-berroneratzea eta hiri-berritzea helburu duten jarduketak aurrera eraman ahal izateko. Eta baita LAGek eta Tolosako Eremu Funtzionalaren LZPak ere. Gainera, azken dokumentu honetan 11. San Esteban esparrua bizitegi-garapen berriko eremu nagusitzat izendatzen da eta baita hiri-izaerako ekipamendu berrientzako gunetzat ere. LZPak bere Antolamendu Arauetan eta Udal Antolamenduaren gaineko eraginei buruzko agiri osagarrian Bizitegitarako lurzorua eskaintza LZParen arabera kuantifikatzea eskatzen du.

Horrek guztiak eskatzen du Planaren aldaketa puntualaren aurrerakina abian jartzea.

Ondorioz, eta azaldutako guztiagatik, baieztatu dezakegu behar bezala justifikatzen dela "interes publikoa" 11. San Esteban esparruan Hiri Antolamenduko Plan orokorra aldatzeko espedientea bultzatzeko.

II.3.- HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA ALDATZEKO ESPEDIENTEA BULTZATZEKO JARRAITU BEHARREKO PROZEDURAREN AZTERKETA JURIDIKOA

II.3.1.- Egiturazko antolamenduaren aldaketa

Aurrekarietan aipatu den moduan, auzoaren garapenari buruz antolatu ziren parte-hartze prozesuetan HAPOn jasotako zehaztapenak errotik birplanteatzeko beharra ikusi zen. Eta indarreko hirigintza-araudiak eta lurralde antolamenduko tresnek ere planteamendu berri bat eskatzen dute. Beraz, gaur egungo egiturazko antolamendua



aldatu beharko litzateke. Besteak beste, azpiesparruaren muga, lurzoruaren kalifikazio globala, sistema orokorren sarea, aurreikusten diren hirigintza-eraikigarritasuna edota erabilera berezia eta erabilera bateragarriak bezalako egiturazko hirigintza-zehaztapenak birplanteatu eta aldatuko dira ziurrenik. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 53. artikulua aplikatuz, aipatutako parametroak egiturazko hirigintza-zehaztapenak dira, eta, beraz, plangintza orokorrean jaso behar dira. Ondorioz, Tolosako HAPO aldatu egin behar da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104. artikulua xedatzen duenez, hirigintza-zehaztapenak berrikusteko eta aldatzeko espedienteak izapidetzeko, haiek onartzeko jarraitutako prozedura bera bete beharko da.

Plan Orokorrak izapidetzea eta onartzea aipatutako legezko xedapenaren 90. artikuluan eta hurrengoetan arautzen da, eta nabarmentzekoa da Plan Orokorra egitea Udalari dagokiola, eta hura egiten hastea erabaki behar dela.

Artikulu horren 1. zenbakian honako hau ezartzen da:

“1.- Udalari dagokio plan orokorra egitea. Egitea erabakitzen denean, informazioa eskatuko zaie Eusko Jaurlaritzan eta dagokion foru-aldundian babes zibilaren, ingurumenaren, kultura-ondarearen eta naturguneen alorreko eskumenak dituzten organoei, arriskuen berri izateko eta ingurumena, kultura-ondarearen babesa eta naturguneak baldintzatzen dituzten faktoreak zeintzuk diren eta antolamenduak zeintzuk errespetatu behar dituen jakiteko. Informazio hori emateko, bi hilabeteko epea egongo da, eta justifikazio tekniko eta juridikoarekin batera emango da.”

II.3.2.- Parte hartzeko programa

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 108. artikulua honako hau ezartzen du:

“ Egiturazko antolamenduaren plangintzako figura oro egiten, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa finkatu beharko da. Programa hori udalerraren ezaugarrietan oinarrituko da, eta herritarrek eta elkarteek planaren taxuketan behar bezala parte har dezaten bermatzeko beharrezkoak diren helburuak, estrategiak eta mekanismoak jasoko ditu.



Mekanismo horien artean honako hauek egongo dira:

- a) *Jendaurreko bilkurak. Aurrerakinaren edukia azaltzeko egingo dira, batez ere hiria eraikitzeko erabaki estrategikoak eta erabaki horiei buruz espedientearen tramitazioan aurkeztutako alternatibak azaltzeko.*
- b) *Udal barruko herri-kontsulta. Planean sartutako konturen bati buruz herritarren artean eztabaida larriak daudenean egingo da, toki-araubideari buruzko oinarrizko legerian finkatutako prozedurari jarraituta.*
- c) *Zabalkunderako materiala. Hirigintza-tresnetarako legez eskatutako agiriekin batera prestatu beharko da, agiri horiek jendeak errazago ezagutu eta ulertu ditzan.”*

Ilido beretik, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3. artikulua 1. atalean ezartzen du Planaren berrikuspena formulatzeko erabakiarekin batera parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko dela. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko duten eskubidea izan dezaten.

*Herritarrek parte hartzeko programa hori **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko da labur-labur**, informazioaren teknologia berrietan zabalduko da eta, gutxienez, parte hartzeko mekanismo hauek izango ditu:*

“

- a) *Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.*
- b) *Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak.*
- c) *Dibulgazio-materiala: legediak eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko da, dokumentu horiek hedatzen eta ulertzen laguntzeko.”*

Hala, HAPOren aldaketa puntual hau aurrera eramateko honako parte-hartze programa definitu da, Sabai Arkitektoak S.L.P. enpresarekin eta udaleko Gobernantza eta Komunitatea Departamentuko teknikariarekin adostuta:

- ***Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko. Bertan honako erakundeetako ordezkariak hartuko dute parte: Tolosako Udalak (Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta***



Ingurumena Departamentuko eta Komunitatea eta Gobernantza Departamentuko arduradun tekniko-politikoek) eta Sabai Arkitektoak S.L.P. enpresak.

- **Herritarren parte hartzeko tailer irekiak antolatuko dira.** Saio hauek hiru fase izango dituzte: lehen fasean, Informazio eta Diagnostiko dokumentua bukatu eta gero eta Aurrerakineko Alternatiba ezberdinak zehaztu eta osatzeko prozesuaren barnean, dagozkion ekarpenak jasoko dira herriko eragile eta herritarrengandik. Bigarren fasean, berriz, Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epean, deboluzio-tailerra egingo da, proposamen teknikoa aurkezteko. Azkenik, hirugarren fasea, iradokizunen epea amaitu eta hauek kontuan hartuta, HAPOn Aldaketa Puntuala idazteko Irizpide eta Helburuak zehazteko egingo da.

1. **Lehen fasea.** Hiru saio egitea aurreikusten da:

FASEA	SAIOA	DESKRIBAPENA
LEHENENGOA	1go SAIOA	INFORMAZIO TAILERRA. Informazio eta Diagnostiko dokumentuaren ondorioak azaltzeko saioa, bereziki, auzotarrei zuzendua.
	2gn SAIOA	1go TAILER IREKIA. Eremuaren Ipar-ekialdeko zatiaren antolamendua lantzeko saioa. Zuberoako etxebizitzak eta San Juan kalea 10-12 zenbakiko etxebizitzaren artean gelditzen den eremuaren antolamendua bereziki lantzeko.
	3gn SAIOA	2gn TAILER IREKIA. Eremuaren gainerako zatiaren antolamendua lantzeko saioa.

1go SAIOA: INFORMAZIO BILERA.

Informazio eta Diagnostiko dokumentuaren laburpenak eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoko Hasierako Dokumentuaren ondorio nagusiak (bestek beste, lurzoruaren bokazio-planoa) azalduko dira. Horrez gain, Alternatiba ezberdinetan oinarritzat hartuko diren zehaztapenak erakutsiko dira. Saio honetara, bereziki, bertako bizilagunak gonbidatuko dira.

2gn SAIOA: 1go TAILER IREKIA.

Eremuaren Ipar-ekialdeko zatiaren antolamendua landuko da saio honetan. Zuberoako etxebizitzak eta San Juan kalea 10-12 zenbakiko etxebizitzaren artean



gelditzen den eremuaren antolamendua bereziki landuko da. San Esteban auzoko etxebizitza gehienak bertan kokatzen dira eta eremuak tratamendu berezia eta zehatza behar duela ikusi da hiri-berroneratzearen ikuspegitik. Besteak beste, zeharkako genero perspektiba txertatuko da.



1go tailer irekian landuko den gutxi gora beherakoa antolamendu-eremua

3gn SAIOA: 2gn TAILER IREKIA.

Eremuaren gainerako zatiaren antolamendua lantzeko saioa izango da. Batez ere jarduera ekonomikoak eta ekipamenduak daude gaur egun gunen horretan. Besteak beste, zeharkako genero perspektiba txertatuko da.

Lehen fase honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira eta Aurrerakineko Alternatibak osatu eta egokitzeko erabiliko dira.

2. **Bigarren fasea.** Saio bat egitea aurreikusten da:

FASEA	SAIOA	DESKRIBAPENA
BIGARRENA	4gn SAIOA	DEBOLUZIO TAILERRA. Aurrerakineko Antolamendu Aukerak azaltzeko egingo da



4gn SAIOA: DEBOLUZIO-TAILERRA.

Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epean, deboluzio-tailerra egingo da, proposamen teknikoa aurkezteko. Hau da, aurreko bi tailerretako emaitzetan oinarritutako Antolamendu Aukerak azaltzeko izango da tailer hau.

Parte hartzeko bigarren faseko bilera ireki honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira.

3. **Hirugarren fasea.** Saio bat egitea aurreikusten da:

FASEA	SAIOA	DESKRIBAPENA
HIRUGARREN A	5gn SAIOA	AMAIERAKO SAIOA. HAPOn Aldaketa Puntuala idazteko Irizpide eta Helburuak zehazteko egingo da

5gn SAIOA: AMAIERAKO SAIOA.

Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epea amaitu eta gero, iradokizunak aztertu ondoren, parte hartzeko azken saioa egingo da HAPOn Aldaketa Puntuala idazteko Irizpide eta Helburuak zehazteko. Irizpide eta Helburu horiek ondoren Udalbatzak onartuko ditu.

Parte hartzeko hirugarren faseko bilera ireki honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira.

- **Landutako materiala eta hirigintza-agiriak herritarren eskura egongo dira.** Batetik, Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian landutako dokumentu, laburpen eta euskarri guztiak eskuragarri egongo dira. Bestetik, iradokizunetarako "Liburu Zuria" prestatuko da zeina, parte hartzeko tailerrak eta Aurrerakin dokumentua amaitzen direnean, jendaurreko epean, auzoan jarriko den iradokizunak egitea errazteko.



II.3.3.- Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordea

Bestalde, Tolosako Udalbatzak, 2012ko martxoaren 27an egindako osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordearen Araudiari, indarrean zegoena bertan behera utzi ondoren. Erabaki horretan xedatu zen onartutako araudia behin betiko onartutzat joko zela, jendaurreko tramitean alegaziorik aurkeztu ezean. Jendaurreko tramitean ez zen alegaziorik aurkeztu, eta ondorioz araudia behin betikoz onartua geratu zen.

Araudi horren 4. artikulua Udal Plangintzako Aholku Batzordearen funtzioak eta xedeak zehazten dira. Horien artean, parte hartzeko programekin lotuta, hauei onarpena ematea dagokie 4.2.3. artikulua arabera:

“2.3. Herritarren parte hartzea sustatzea eta bermatzea, hirigintzarekin lotutako herri galdeketak proposatzea eta hirigintzako plangintza agiriek atxikita duten Herritarrek Parte Hartzeko Programa onartzea, hala nola, beronen aurreikuspenak hobeto betetzen laguntzea.”

Beraz, beharrezkoa izango da aurretik deskribatu den parte hartzeko programak Udal Plangintzako Aholku Batzordearen onespena jasotzea organo eskudunak onartu baino lehen.

II.3.4.- Organo eskuduna

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikulua aplikatuz, Osoko Bilkura da plangintza orokorrari buruzko erabakiak hartzeko eskumena duen organoa.

(...)”

2022ko urriaren 13an Udal Plangintzako Aholku Batzordearen bilera egin da eta bertaratutakoek aho batez onartu dute proposatutako parte hartze programa.

Aldeko botoak: Egoitz Sorozabal Iturain, Xarles Iturbe Pasaban, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Ander Figuerido Zubiria, Jose M^a Villanueva Telleria, Xabier Agirre Alzuru, M^a Inmaculada Perez Minguez.



Ondoren, Tolosako udaleko Lurralde Batzordeak, 2022ko urriaren 19an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu du. Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Patxi Amantegi Zubiria, Jose Mari Villanueva, Andu Martinez de Rituerto, Ander Figuerido eta Aitzol Garzia.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- Tolosako HAPOko 11. San Esteban Esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hastea.

BIGARRENA.- Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa onartzea.

Programak honako eduki hau izango du:

- **Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko.** Bertan honako erakundeetako ordezkariak hartuko dute parte: Tolosako Udalak (Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena Departamentuko eta Komunitatea eta Gobernantza Departamentuko arduradun tekniko-politikoek) eta Sabai Arkitektoak S.L.P. enpresak.
- **Herritarren parte hartzeko tailer irekiak antolatuko dira.** Saio hauek hiru fase izango dituzte: lehen fasean, Informazio eta Diagnostiko dokumentua bukatu eta gero eta Aurrerakineko Alternatiba ezberdinak zehaztu eta osatzeko prozesuaren barnean, dagozkion ekarpenak jasoko dira herriko eragile eta herritarrengandik. Bigarren fasean, berriz, Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epean, deboluzio-tailerra egingo da,



proposamen teknikoa aurkezteko. Azkenik, hirugarren fasea, iradokizunen epea amaitu eta hauek kontuan hartuta, HAPOn Aldaketa Puntuala idazteko irizpide eta Helburuak zehazteko egingo da.

1. **Lehen fasea.** Hiru saio egitea aurreikusten da:

FASEA	SAIOA	DESKRIBAPENA
LEHENENGOA	1go SAIOA	INFORMAZIO TAILERRA. Informazio eta Diagnostiko dokumentuaren ondorioak azaltzeko saioa, bereziki, auzotarrei zuzendua.
	2gn SAIOA	1go TAILER IREKIA. Eremuaren Ipar-ekialdeko zatiaren antolamendua lantzeko saioa. Zuberoako etxebizitzak eta San Juan kalea 10-12 zenbakiko etxebizitzaren artean gelditzen den eremuaren antolamendua bereziki lantzeko.
	3gn SAIOA	2gn TAILER IREKIA. Eremuaren gainerako zatiaren antolamendua lantzeko saioa.

1go SAIOA: INFORMAZIO BILERA.

Informazio eta Diagnostiko dokumentuaren laburpenak eta Ingurumen-ebaluazio Estrategikoko Hasierako Dokumentuaren ondorio nagusiak (besteak beste, lurzoruaren bokazio-planoa) azalduko dira. Horrez gain, Alternatiba ezberdinetan oinarritzat hartuko diren zehaztapenak erakutsiko dira. Saio honetara, bereziki, bertako bizilagunak gonbidatuko dira.

2gn SAIOA: 1go TAILER IREKIA.

Eremuaren Ipar-ekialdeko zatiaren antolamendua landuko da saio honetan. Zuberoako etxebizitzak eta San Juan kalea 10-12 zenbakiko etxebizitzaren artean gelditzen den eremuaren antolamendua bereziki landuko da. San Esteban auzoko etxebizitza gehienak bertan kokatzen dira eta eremuak tratamendu berezia eta zehatza behar duela ikusi da hiri-berroneratzearen ikuspegitik. Besteak beste, zeharkako genero perspektiba txertatuko da.

3gn SAIOA: 2gn TAILER IREKIA.

Eremuaren gainerako zatiaren antolamendua lantzeko saioa izango da. Batez ere jarduera ekonomikoak eta ekipamenduak daude gaur egun guene horretan.



Besteak beste, zeharkako genero perspektiba txertatuko da.

Lehen fase honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira eta Aurrerakineko Alternatibak osatu eta egokitzeko erabiliko dira.

2. **Bigarren fasea.** Saio bat egitea aurreikusten da:

FASEA	SAIOA	DESKRIBAPENA
BIGARRENA	4gn SAIOA	DEBOLUZIO TAILERRA. Aurrerakineko Antolamendu Aukerak azaltzeko egingo da

4gn SAIOA: DEBOLUZIO-TAILERRA.

Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epean, deboluzio-tailerra egingo da, proposamen teknikoa aurkezteko. Hau da, aurreko bi tailerretako emaitzetan oinarritutako Antolamendu Aukerak azaltzeko izango da tailer hau.

Parte hartzeko bigarren faseko bilera ireki honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira.

3. **Hirugarren fasea.** Saio bat egitea aurreikusten da:

FASEA	SAIOA	DESKRIBAPENA
HIRUGARRENA	5gn SAIOA	AMAIERAKO SAIOA. HAPOn Aldaketa Puntuala idazteko Irizpide eta Helburuak zehazteko egingo da

5gn SAIOA: AMAIERAKO SAIOA.

Aurrerakineko Aukerak jendaurrean jarri eta iradokizunak jasotzeko epea amaitu eta gero, iradokizunak aztertu ondoren, parte hartzeko azken saioa egingo da HAPOn Aldaketa Puntuala idazteko Irizpide eta Helburuak zehazteko. Irizpide eta Helburu horiek ondoren Udaltzako onartuko ditu.



Parte hartzeko hirugarren faseko bilera ireki honetan jasotakoak txosten batean bilduko dira.

- **Landutako materiala eta hirigintza-agiriak herritarren eskura egongo dira.** Batetik, Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian landutako dokumentu, laburpen eta euskarri guztiak eskuragarri egongo dira. Bestetik, iradokizunetarako “Liburu Zuria” prestatuko da zeina, parte hartzeko tailerrak eta Aurrerakin dokumentua amaitzen direnean, jendaurreko epean, auzoan jarriko den iradokizunak egitea errazteko.

HIRUGARRENA.- GAOn argitaratzea Tolosako HAPOko 11. San Esteban Hirigintza Esparruko Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

LAUGARRENA.- Informazioa eskatzea babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerrriaren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz.”

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako HAPOko «11 San Esteban» Hirigintza Esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hastea eta herritarrek parte hartzeko programa.



20. KREDITU ALDAKETA HONEN BERRI EMATEA:
- 2022/2532 ALKATETZA DEKRETUA, 13/2022 ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.

2022/13 kreditu gaiikuntzaren modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/2532 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gaiikuntzaren modalitatekoa, 2022-KALD-000013-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txosten eta ziurtagiriaren arabera espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 31. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako foru aruak 31. artikuluen 5. eta 6. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- *Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gaiikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:*

GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	10.148,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		10.148,00



SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	10.148,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		10.148,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkatea

Idazkaria

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

21.KREDITU ALDAKETA HONEN BERRI EMATEA:
-2022/2528 ALKATETZA DEKRETUA, 14/2022 ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.

2022/14 kreditu gehigarrien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/2528 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2022-KALD-000014-00.

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau



EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	30.000,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		30.000,00

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	30.000,00
GUZTIRA		30.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkatea

Idazkaria

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



**22.ETXEBIZITZAK ETA BIZITEGI-ERAIKINAK BIRGAITZEKO DIRULAGUNTZAK
EMATEKO UDAL ORDENANTZA BERRIAREN BEHIN BETIKO ONESPENAREN
BERRI EMATEA.**

Udalbatzako kideek gai honen berri izan dute:

AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkia udaletxeko taulan	2022/03/11- 2022/04/10 2022/03/11	
Aurretiazko kontsulta publikoaren iragarkia web orrian	2022/04/01	
Informazio publikoko epearen amaiera	2022/05/03	Alegaziorik ez
Txosten juridikoa informazio publikoari buruz	2022/06/03	Aldekoa, zuzenketekin
Lege-txostena	2022/06/08	Alegaziorik ez
Idazkariaren ziurtagiria informazio publikoari buruz	2022/07/15	Aldekoa, iruzkinekin
Berdintasunari buruzko txostena	2022/07/19	Aldekoa, zuzenketekin
Fiskalizazio txostena	2022/07/19	
Lurralde Batzorde Informatiboari egindako irizpen-proposamena	2022/08/08	Emendakinaren onarpena eta ordenantza berria hasieraz onartzea
Udaleko idazkariaren ziurtagiria Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkuran (2022/07/28) hartutako erabakiaz	2022/08/12	
Iragarkia web orrian	2022/08/12 (154 zk.)	
Iragarkia GAOn	2022/08/16 – 2022/09/28	Informazio publikoaren azken eguna: 2022/09/28
Iragarkia udaletxeko taulan	2022/10/10	Alegaziorik ez
Informazio publiko aldiari buruzko txostena eta ziurtagiria		



AZTERKETA JURIDIKOA

Ikusirik, berdintasuneko zein kontu-hartzaile akzidentalak eta bitarteko kontu-hartzaile teknikariak euren txostenetan jasotakoa aintzat hartu eta dagozkion zuzenketak egin direla eta Udaltzako 2022ko uztailaren 28an Ohiko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren ondotik irekitako jendaurrekoan ez dela ez alegazio, iradokizun edota erreklamaziorik aurkeztu; ondorioztatzen da behin betiko onartu dela etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantza berria.

Beraz, 2022ko urriaren 19an Lurralde Batzorde Informatiboari berri ematen zaio etxebizitzak eta bizitegi eraikinak birgaitzeko dirulaguntzak emateko udal ordenantza behin betiko onartu dela, bi mila eta hogeita biko uztailaren hogeita zortziko Osoko Bilkuran hasieraz onartu zen eduki eta idazketa berarekin.

Udaltzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

23.TOLOSAKO LANDA AUZOETAKO BASERRI-BIDEETAN ELURRA KENTZEKO ZERBITZUA AUZOLANAREN BITARTEZ EMATEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAKO ALDAKETAREN BEHIN BETIKO ONESPENAREN BERRI EMATEA.

Udaltzako kideek gai honen berri izan dute:

AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Ordenantzaren hasierako onespena	2019/12/18	
Behin betiko ordenantza GAOn publikatzea	2020/12/04	
Aurretzako kontsulta. Irargaria udaletxeko taulan	2022/05/17	
Aurretzako kontsulta. Irargaria web orrian	2022/05/18	
Informazio publikoaren epearen amaiera	2022/06/10	
Hirigintzako AOTaren txosten juridikoa	2022/06/10	
Informazio publikoari buruzko	2022/06/13	Ez da alegaziorik egon



ziurtagiria		
Ordenantza proposamena	2022/06/13	
Berdintasunari buruzko txostena	2022/06/13	Aldekoa
Hizkuntza baldintzei buruzko txostena	2022/06/13	Aldekoa, gomendioekin
Idazkaritzaren txosten juridikoa	2022/06/15	Aldekoa
Kontuhartzaitzako fiskalizazio txostena	2022/06/15	Aldekoa, gomendioekin
Lurralde Batzorde Informatiboari egindako irizpen-proposamena	2022/06/16	
Udaleko idazkariaren ziurtagiria Udaltzako Ohiko Osoko Bilkuran (2022/06/30) hartutako erabakiaz	2022/07/07	Ordenantzaren aldaketa hasieraz onartzea
Iragarkia GAOn	2022/07/21 (139 zk.)	
Iragarkia web orrian	2022/07/26	
Iragarkia udaletxeko taulan	2022/07/26 – 2022/09/07	Informazio publikoaren azken eguna: 2022/09/07
Informazio publiko aldiari buruzko txostena eta ziurtagiria	2022/09/19	Alegaziorik ez

AZTERKETA JURIDIKOA

Ikusirik, hizkuntza baldintzei buruzko txostenean zein kontuhartzaitzako txostenean jasotako gomendioak aintzat hartu eta dagozkion zuzenketak egin direla eta Udaltzako 2022ko ekainaren 30ean Ohiko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren ondotik irekitako jendaurrekoan ez dela ez alegazio, iradokizun edota erreklamaziorik aurkeztu; ondorioztatzen da behin betiko onartu dela Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen dun ordenantzako aldaketa.

Beraz, 2022ko urriaren 19an Lurralde Batzorde Informatiboari berri eman zaio zaio Tolosako landa auzoetako baserri bideetan elurra kentzeko zerbitzua auzolanaren bitartez ematea arautzen duen ordenantzako aldaketa behin betiko onartu dela, bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeita hamarreko Osoko Bilkuran hasieraz onartu zen eduki eta idazketa berarekin.

Udaltzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



GAI ZERRENDATIK APARTE ETA GAIAREN PREMIATASUNA DELA ETA, UDALBATZAK, AHO BATEZ ONARTU ONDOREN, HONAKO GAI HAU AZTERTU DA:

24.HASIERAKO ONARPENA EMATEA 2022KO DIRULAGUNTZEN ERANSKINA ALDATZEKO PROPOSAMENARI: 5-2022

2022ko dirulaguntzen eranskinean, honako aldaketa hauek sartzea proposatu da:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
0800.481.01.337.20	ZUMARDIA ELKARTEA	Olentzeroren basoa ekimena diruz laguntzea	15.000 €	Izenduna

PROPOSAMENA

Lehena.- Hasierako onarpena ematea dirulaguntzen eranskineko aldaketa hauei eta, ondorioz, aldaketa horiek sartuta, eranskina honela uztea:

Partida	Onuraduna	Helburua	Behin betiko Aurrekontua 2022	Mota
0800.481.01.337.20	ZUMARDIA ELKARTEA	Olentzeroren basoa ekimena diruz laguntzea	15.000 €	Izenduna

Bigarrena.- 2022ko dirulaguntzen eranskineko aldaketak jendaurrean jartzea hamabost lanegunez, Osoko Bilkuraren hasierako onarpenaren ondoren. Horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, era berean, udaletxeko iragarki taulan jarriko da, interesdunek erreklamazioak jar ditzaten. Erreklamazio edo alegaziorik ez bada aurkezten epe barruan, aipatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe



Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez hasierako onarpena eman dio dirulaguntzen eranskinaren aldaketari:5-2022

25. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN 2020-2022KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 4. ALDAKETA

2020-2022 Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 3.8 lerroa gehitzeko proposamena jaso da.

Dirulaguntza lerroa: 3.8 ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN EROSKETA

Eskumen arloa	Kultura eta aisialdia
Sektore hartzaileak	Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa
Helburuak	- Ondare historiko-artistikoa berreskuratzea - Ondare historiko-artistikoa zabaltzea - Herriko festa eta ospakizunetan erraldoi eta buruhandiak erostea eta baliatzea
Lortu nahi diren ondorioak	Tolosako Erraldoi eta Buruhandien parte hartzea bermatzea herriko festetan eta ospakizunetan.
Egikaritze epea	2022
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuaren aurreikuspenaren arabera. Finantziazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoarekin bat etorritik, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Ondarearen hasierako egoera dokumentatu.

PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0800.781.01.334.10	Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa	6 erraldoi eta 9 buruhandiren erosketak	61.000 euro	Izenduna	61.000 euro

Dirulaguntzen plan estrategikoa aldatzearen justifikazioa oinarritzen da 38/2003 Legearen 8. artikuluan eta Lege hori garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan.



Arautegiaren arabera, dirulaguntza bat ezarri aurretik dagokion lerroa dirulaguntzen plan estrategikoan sartu behar da.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da aldaketa hau indarrean sartzeko erabakia hartzea eta aldaketaren testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketak onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Gaia aztertu ondoren, bozkatu egin da, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Estitxu Kortejarena Ugarte, Garbiñe Marzol Ormazabal, Jose Mari Villanueva Telleria, Patxi Amantegui Zubiria, Begoña Tolosa Mendia eta Xabier Balardi Tolosa.

Hau dela eta, batzordeak hau

DIKTAMINATU DU

Lehena.-3.8 lerroa gehitzea 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan.

Dirulaguntza lerroa: 3.8 ERRALDOIEN ETA BURUHANDIEN EROSKETA

Eskumen arloa	Kultura eta aisialdia
Sektore hartzaileak	Tolosako Buruhandi eta Erraldioen konpartsa
Helburuak	- Ondare historiko-artistikoa berreskuratzea - Ondare historiko-artistikoa zabaltzea - Herriko festa eta ospakizunetan erraldoi eta buruhandiak erostea eta baliatzea
Lortu nahi diren ondorioak	Tolosako Erraldoi eta Buruhandien parte hartzea bermatzea herriko festetan eta ospakizunetan.
Egikaritze epea	2022
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuaren aurreikuspenaren arabera. Finantziazioa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorri, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Ondarearen hasierako egoera dokumentatu.



PARTIDA	ONURADUNA	AZALPENA	KOPURUA	MOTA	INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA
0800.781.01.334.10	Tolosako Buruhandi eta Erraldoien konpartsa	6 erraldoi eta 9 buruhandiren erosketa	61.000 euro	Izenduna	61.000 euro

Bigarrena.-Osoko Bilkuraren onarpenaren ondoren, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu** du Tolosako Udalaren 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren aldaketa.

26.KREDITU ALDAKETA HONEN BERRI EMATEA:

- 2022/2607 ALKATETZA DEKRETUA, 17/2022 ESPEDIENTEARI DAGOKIONA.

2022/17 kreditu transferentzien modalitateko kreditu aldaketaren berri eman da. 2022/2607 Alkatetza dekretuak honela dio:

ALKATEAREN DEKRETUA

Olatz Peon Ormazabal Tolosako Udaleko alkate lehendakariak emana

Ikusita udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, gastu partiden arteko kreditu transferentzien modalitatekoa, 2022-KALD-000017-00 zenbakiduna.

Ikusita jarduneko Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren



19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 29. artikulua 3. eta 4. apartatuen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBATZI DUT

Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	86.826,00	15.000,00	71.826,00
	GUZTIRA	86.826,00	15.000,00	71.826,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	25.000,00	15.000,00	40.000,00
	GUZTIRA	25.000,00	15.000,00	40.000,00

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Idazkaria

Alkatea

Udalbatzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



27. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Besterik gabe, 22:00etan, bilera bukatutzat eman dute, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanda.

ALKATEA
O. e.

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IPLE0010-2022-10-27 Ohiko osoko bilkura akta/2022-10-27 Ohiko osoko